

Elkarrizketa
politikoak

MAÑARIA



"Trafikoa moteltzeko, herri sarreran, erdian eta irteeran zebrabide goratuak egin gura ditugu"

Mañaria • Mañariko Kirikiño kalean trafikoak hartzen duen abiadura udalaren kezka nagusietariko bat da. Horregaitik, neurriak hartzeari ezinbestekoa deritzote. Bestalde, legegintzaldiko beste erronka batzuk ere nabarmendu ditu Ainara Otxotorena alkateak. • 2-3

Gehigarria - Gabonak



Hainbat ikaslek JAED elkarteari lagundu diote azken asteetan

Durango-Iurreta • Urrian hasita eta urtea amaitu arte, JAEDeko kideek hamabost bat ikasleren laguntza izan dute asteroko sortak prestatzeko; Durangoko Frai Juan Zumarraga eta lurretako Juan Orobiogitia ikastetxeetako ikasleak dira. • 20-21



Dolu prozesuez eta heriotzaz lasai jarduteko gunea

Berriz • Bigarren urtez, Anakotz Lasartek, Aitor Monjek eta Karmen Amezuak 'Hitz egin dezagun heriotzaz' jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen. Azken biek berba egin du ANBOTOk. Eguenean, Gabonetan dolua bizitzeari buruzko berbaldia egingo dute Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan. • 10

"Final honek hemen egotea merezi duen bertsolari bat naizela sinisteko balio dit"



Bertsolaritza • Gorka Pagonabarra durangarrak Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala jokatu du, bihar, Bilbo Arenan. • 32



Izarra eta promesa nor baino nor gehiago domekan, Durangoko pilota finalean

Kirola • Lau eta erdian azken txapelketa biak irabazi dituen Amaia Aldaik 14 urteko Goiuri Zabaleta izango du aurkari, Ezkurdi Jai Alain. • 35



Ainara Otxotorena Iriarte

Mañariko alkatea

HERNANI | 1984

“Aparkaleku berria egin eta plazakoa asteburuetan herritarrentzat izatea gura dugu”

Herriko denda lizitaziora ateratzea, trafikoaren abiadura moteltzea eta trantsizio ekologikorako neurriak hartzea proposatzen du Ainara Otxotorenak legegintzaldi berrirako

MAÑARIA • JONE GUENETXEA

Mañariko alkatea izateaz gainera, Mankomunitateko presidenteordea da Ainara Otxotorena. Lan biak uztartuz ekin dio legegintzaldiari.

Bigarren legegintzaldiari ekin diozu Mañariko Udalaren gidaritzan. Zer moduz?

Nire lehenengo legegintzaldia erronka bat bezala hartu nuen. Hasiera guztiak zailak dira eta hasiberriei aukera eman behar zaie. Denbora behar da martxa hartzeko. Gainera, tartean pandemia bat izan dugu. Baina legegintzaldia sentsazio onarekin amaitu nuen, bai pertsonalki eta baita taldean ere. Bigarren legegintzaldi hau oso gogotsu hartu dut eta aurretik ikasitakoarekin errazagoa da. Ni

disfrutatzen ari naiz eta ahal den ondoen egitea da asmoa.

Zelan doaz 2024ko aurrekontuak?

Aurrekontuen lehenengo zirriborroa azaroaren hasierarako egin genuen, oposizioarekin aztertzeko. Beti eskua luzatzen dugu batzordetik kanpo azalpenen bat behar badute. Batzordera ere eramaten da gero. Ez dute aparteko azalpenik eskatu, eta aurreko astean batzordetik pasatu genuen. Suposatzen da gaur bertan egingo dugun osoko bilkuran onartuko direla.

Zeintzuk dira 2024rako aurreikusi dituzuen lan ildoak eta inbertsioak?

Aparkaleku berria egin eta plazakoa asteburuetan herritarrentzat izatea gura dugu. Kirikiño kaleko trafikoa moteltzeko neurriak hartzea ere garrantzitsua izango da.

Urtez urte auzo bideak konpontzen joan gara eta datorren urtean ere jarraituko dugu. Bestalde, hilerrian azterketa geologiko bat egin behar dugu, zati bat hondoratzen ari delako. Azterketa horren ondoren emaitzak ikusiko ditugu eta hilerriko konponketak ere egin nahiko genituzke.

Legegintzaldiari dagokionez, zeintzuk dira lau urte hauetarako erronkak?

2024rako esandako guztiez gainera, frontoia berriztatzea aurreikusita daukagu. Trantsizio energetikoari ere bultzada bat eman nahi diogu, aurreko urteetan pausoak eman ditugun arren. Herriko dendari ere aukera bat eman nahiko genioke. Mañariko toponimiaren mapa ere egin nahiko genuke, eta antzinako euskararen inguruko azterketa. Horixe da buruan duguna.

Sasoi batean medikurik barik egon zarete. Zein arazo izan duzue eta zein da egoera momentu honetan?

Arazoa udan etorri zen. Gure sendagileak oporrak hartu zituenean, opor horiek ez zituztela ordezkatuko jakinarazi ziguten. Beraz, aste tarte batzuetan medikurik gabe egon ginen. Baina irailean sartu ginenean eta normaltasunera bueltatu ginenean, gure sendagileak baja hartu zuen. Baja hori ordezkatu gabe geratu zen. Egoera horren aurrean, mañariarrek eta izurtzarrek, mediku txanda Durangon hartzeko, egunean bertan hartu behar zuten. Ezin zen txanda hartu

astelehen batean ostiral baterako, adibidez. Txanda guztiak beste mediku guztien artean banatzen zituzten. Urrian ere berdin jarraitzen genuen. Egoera horren aurrean, Mañariko eta Izurtzako herritarrek elkarretaratze batera deitu zuten, eta, egia esan, oso eraginkorra izan zen. Oso mobilizazio jendetsua izan zen. Horren ondoren, medikua ordezkatu zuten, eta, oraingo, badaukagu medikua. Herritarrek idatziz ere sartu zituzten kexak. Orain normaltasunera itzuli gara.

Uste dut oporrak heltzen direnean berriro ere medikurik gabe gera gaitezkeela. Osasun Saitetik eta Durangaldetik esan digutena da ez dutela baliabide pertsonalik. Baina hau ez da oraingo kontua. Pandemia aurretik ere bazekiten pertsonal falta handia daukatela. Osakidetzan egoera hori bideratzen saiatu beharko dira.

Zein mediku zerbitzu daukazue?

Medikua eta erizaina egoten dira, 10:50etik 12:00etara.

Kirikiño kaleko errepideko trafikoren abiadura arazo handia da Mañarian. Zein planteamendu mahaigaineratu duzue arazo horri irtenbidea emateko?

Gai honekin aspaldi hasi ginen. Orain hiru bat urte, herrigunetik ibilgailuak zein abiaduratan pasatzen ziren ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ginen. Arrisku handia zegoela ikusita, argi genuen ez genituela nahi Izurtzarako hartutako neurriak. Hau da, ez genuen nahi kotxerik

gelditzea errepidea inork pasatuko ez badu. Hasieran, herriguneko pabimentu guztia altxatzea eta oinezkoentzako moduan jartzea zen gure proposamena, baina Bizkaiko Foru Aldundiak hasieratik esan zigun hori ez zela posible. Horregatik joan ginen Iurretako eredura. Hura ere errepide nazionala da. Baina esan ziguten hori baimentzeko instrukzio berezi bat egin behar zela. Gaur daukagu batzarra prozesu hori zelan doan jakiteko. Gure proposamena zehatza da: herri sarreran, erdian eta irteeran,

Gure proposamen zehatza da: herri sarreran, erdian eta irteeran, espaloiraino goratutako zebrabideak egitea

espaloiraino goratutako zebrabideak egitea. Horrela, trafikoa mantsotzea derrigortzen da. Badakigu udalak ordaindu beharko duela, baina uste dugu egunerokotasunean onura handia ekarriko duela herritarrentzat. Kotxeak abiadura handian pasatzen dira. Semaforoak gorrian pasatzen dituzte. Gainera, kamioien joan-etorria handitu egin da. Neurri inportantea da.

2024ko egitasmoetariko bat aparkaleku berria egitea da.

Proiektu hori aspalditik eginda dago, udalak duen lursail bakarra herri sarrerako parkean dagoela



horrekin gaude. Udalak, modu batera edo bestera, gai honi heldu behar dio, herriko gazteek eta nagusiagoek ere Mañarian geratzeko gogoia daukatelako. Kanpotik etorri den jende kopurua ere asko handitu da. Arzubian etxebizitzak eraikiko direla aurreikusita dago, baina epe ertain-luzera begira izango litzateke.

Rafaren denda itxi zenetik, hainbat ekimen martxan ipini duzue denda zabalik mantentzeko. Merkataritzak zein garrantzia dauka herri txiki batean?

Oso garrantzitsua da. Egia esan, denda itxi zenetik jendea ohitu egin da zerbitzu hori gabe bizitzen. Inguruko herrietan egiten dituzte erosketak, Durangon, Iurretan zein Abadiñon. Baina datorren urtean beste saiakera bat egin nahiko genuke ea baten bat animatzen den. Saiakerak egin dira eta jendea interesatuta egon da, baina azkenean ez dira aurrera atera. Gaur egun, erabilera bat ematen zaio: astelehenetan produktu ekologikoen otzarak eta produktuak banatzen dira bertan. Oso erantzun ona izan du, hasieratik. Baina iruditzen zaigu horrez gainera beste produktuak erosteko aukera ere izan beharko lukeela herriak. Oso limitatua izango litzateke. Agian ez litzateke zabalik egongo

egunero, ezta egun osoan ere. Baina aukera hori egongo litzateke behintzat. Datorren urte hasieran berriz ere esleipenera ateratzeko asmoa daukagu. Ea baten bat animatzen den.

Urkiolan 4,1 hektareako baso bat erosi zuen udalak. Zein helburugaz?

Txaboleta lursaila 2021ean erosi zen. Bere garaian, Mañariak lursail asko izan zituen, baina pribatizatu egin ziren. Aukera hau sortu zen, bertako baso autoktono bat bertako espeziekin sortzeko. Lurguaia Fundazioarekin hitzarmena sinatu genuen eta bi urteko prozesua izan da, lurra prestatu eta boluntarioekin landaketak egiteko.

Zein harrera izan dute prozesu parte hartzaileek?

Urtez urte prozesu parte hartzaile ugari egin dira. 2019an kirolgunea-rena egin zen, 2020an dendaren ingurukoa izan zen, zein denda mota nahi zen erabakitzeko, eta 2022an hirigintzako obrak alde batera utzita herritarrek zer nahi zuten jakitea izan zen helburua, herri bizia izan dadin. Azken prozesuan ondorioztatu zen kultur eskaintza nahi zutela, herri giroa bultzatzeko. Kultur astea indartzen joan gara. Kafrega elkartearen bidez ere Albokanrola antolatzen da eta data zehatzetan ere ekitaldiak indartzen saiatzen gara.

Zein pauso eman behar da Mañaria herri bizia izaten jarraitzeko?

Uste dut merkataritzak bere pisua daukala. Ostalaritzan ez daukagu arazorik, baina ostalaritzarik izango ez balitz, arazo bat egongo litzateke. Era berean, oso garrantzitsua da osasun arloko arreta zerbitzua izatea, eta baita beste zerbitzu batzuk ere: kirol eskaintza anitza, haurreskola bat izatea... Ez daukagu eskolarik, baina gure herriko haurrak Iurretara joaten dira, eta badugu garraioa. Gertutasunagatik gai hori ondo bideratuta dago. Kolokan geratzen zaiguna etxebizitzaren gaia da. Gai hori bideratuz gero, uste dut herriko jendeak bertan geratu nahi duela.

Jasangarritasunaren arloan, zein pauso eman duzue?

Lehenengo pausoa frontoiko tei-latuan plaka fotoboltaikoak jartzeta izan zen. Ondoren, berogailu sistema gas bidezkoa genuen. Depositua bat udal eraikuntza, frontoia, herriko taberna eta haurreskola hornitzeko. Beste depositua, kultur etxerako eta Errekondorako. Dagoeneko bi sistemak aeroterminarekin ditugu. Orain asmoa da kirolgunean erreperatzaile batzuk ipiniz berotasun sistema ezartzea.

ko. 2019rako egin zen proiektua, 33 plazako aparkalekua egiteko. Herrian aparkatzeko arazoa ez da asteburuetakoa bakarrik. Egunerokotasunean ere egoten dira aparkatzeko arazoak, plaza ondoko parkinga txiki geratu delako. Beheko beste aparkalekua ere txikia da. Oraingoan, Arzubiko aparkalekua daukagu, baina etorkizunean etxebizitzak aurreikusita daude, eta, gainera, ez da udalarena. Udalak ez ditu ateak itxita. Beste aukera batzuk ere baloratzeko prest gaude.

Zein fasetan dago aparkalekuaren proiektua?

Plan orokorrarekin mugatuta

gaude. Behin betiko onarpena egitea tokatzen da, baina Bizkaiko Foru Aldunditik aldaketa batzuk egiteko eskatu ziguten. Oraintxe bidali eta hiru hilabete beharko litzukete erantzuteko epe moduan. Ondoren, behin betiko onarpena jasoko luke. Beraz, datorren urtean zehar egiteko proiektu bat izango litzateke.

Exxebizitzari dagokionez, gazteek badute aukerarik herrian geratzeko?

Mañarian dagoen arazoa da etxebizitza huts asko dagoela, eta jabeek ez dituztela alokatu nahi. Orain, agian mugimendu gehiago dago, baina lehenengo mentalitate

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh.
48215, Iurreta



Mireia Elkoroiribe, Garbiñe Andrinua, Paule Sanchez eta Jesica Ruiz.

Muruetorre dorretxea Udal Euskaltegiaren egoitza izango da

Datorren ikasturtean Udal Euskaltegiak kokaleku berria estreinatuko du Durangon

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Udal Euskaltegiak kokaleku berria izango du laister: Muruetorre dorretxea. Datorren ikasturteetik aurrera eraikin historiko hori izango da Durangoko Udal Euskaltegiaren egoitza. Halantxik jakinarazi dute asteon Mireia Elkoroiribe alkateak, Paule Sanchez euskara zinegotziak eta Udal Euskaltegi Garbiñe Andrinua zuzendariak. Erabakiaren arrazoi nagusia Udal Euskaltegiari "ikusgarritasuna" eta "entitate propioa" ematea dela azaldu dute. "Gogor eta profesionalki lan egin arren, eta behar bezalako jakinarazpenak eta publizitatea egin

arren, gertatzen zaiguna da jendeak ez dakiela Udal Euskaltegi non dagoen. Nahasmena egoten da. Garrantzitsua deritzogu entitate propioa eskainiko digun kokapen bat izateari", azaldu du Garbiñe Andrinua zuzendariak.

Mireia Elkoroiribe alkateak berretsi du euskaltegiak "gune egoki bat" eta "merezi duen ikusgaitasuna" izango dituela etorkizunean. Adierazi duenez, erabakia "auzo elkarteko kideekin kontsultatuta eta eragile guztien beharrianak aztertuta" hartu dute. Alde horretatik, dorretxean gizarte etxea egiteko proiektua ez da gauzatuko. "Proposamena

Murueta Torre Auzo Elkartekoei komentatu genien, eta begi onez ikusi zuten. Eremua euskaltegi-koekin partekatuko dute. Batzargela propioa izango dute bertan", azaldu du.

EH Bilduren iritziz, "erabakia auzoetako asoziazionismoaren kontrako eraso zuzena da. Gizarte konprometitu eta aktiboa lortzeko modurik onena herritarrei tresnak ematea da".

Herriaren Eskubidea ere "oso kezkatuta" agertu da EAJk eta PSE-EEk osaturiko gobernu taldeak Murueta Torreko gizarte etxea "kentzea" erabaki dutela jakin eta gero.

Herriaren Eskubideak dio aurrekontuek "murrizketa handiak" dakartzatela enpleguan eta hezkuntzan

Durangoko talde independenteak osoko zuzenketa aurkeztu dio Gobernu Taldearen aurrekontu proposamenari



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Herriaren Eskubideak bere iritzia jakinarazi du Durangoko udal aurrekontuen inguruko eztabaidan. Talde independenteak ohar baten bitartez adierazi duenez, gobernu taldeak plazaraturiko proposamenak "murrizketa handiak" ekarriko ditu "gazteria, enplegu, ingurumen eta hezkuntza" arloetara. Zehaztu dutenez, 600.000 eurokoa izango da "murrizte" hori. Era berean, alkatetzarako eta alkateordetzarako diru kopuruak "igo" egin direla kritikatu dute, "91.000 euro" guztira.

Aurrekontu parte hartzaileei buruz ere berba egin dute. Jorge Varela bozeramaileak esan duenez, "negoziaezina" da aurrekontu horietan herritarrek aukeraturiko proiektuak gauzatzea. Alor horretan kokatu ditu trenbidea urbanizatzea, bidegorri gehiago egitea, Pinondoko plaza urbanizatzea eta Ibaizabalena, Otamotzena, San Fauston eta Tabiran txintxaunak eta ur jolasak ipintzea. Azkenik, Kapitaneneko gizarte etxea "bertan behera utzi izana" eta merkatu plazako proiektua "gelditu izana" leporatu diete EAJri eta PSE-EEri.

Carlos Garciak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunak bertan behera uzteko eskatu du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Carlos Garciak, Durangoko PPko zinegotziak, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldiak bertan behera uzteko eskatu du, "kautelazko neurri modura."

Kontua zapatutik dator, Porrotx pailazoak Sare plataformaren aldeko ekitaldi batean parte hartu zuelako, Landako Gunearen ondoan eginiko Kultur Giltzak ekitaldian. Bertan, Porrotx pailazoak "Adin-

bakoen Babeserako Legea urratu" zuela iritzi dio Garciak. Zinegotzi popularraren iritziz, "ekitaldi hartan gertatu zena larria da, pailazoak ume ugariren aurrean *Presoak kalera!* moduko mezuak zabaldu zituelako. Adinez nagusiak direnei gura duzuna esan diezaiekezu, adierazpen askatasunaren izenean. Gurasoek haien ideiak izan ditzakete. Baina umeengana horrela zuzentzea, ideia horiekin zuzentzea, oso larria da", dio Garciak.



Carlos Garcia PPko zinegotzia, ekainaren 17ko inbestiduran.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko abenduaren 15a
22. urtea - 961. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

51 dira Zornotzako hilerriko hobi komunetan topaturiko gudarien eta milizianoen gorpuzkiak

Aranzadi Zientzia Elkarateak 20tik gora topatu zituen joan zen astean, baina azken egun hauetan desobiratzen jarraitu dute eta topaturiko milizianoen kopurua 51ra igo da. Orain, identifikazio lanak hasi gura dituzte familiekin

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Ez 20, eta ezta 25 ere. 51 dira Zornotzako hilerrian topaturiko gerra zibileko gudariak eta milizianoak. Gogora Institutuak eta Zornotzako Udalak jakinarazi dutenez, Aranzadi Zientzia Elkarateak gerrate hartako 51 gudari eta milizianoen gorpuzkiak topatu ditu, programaturiko desobiratze lanak amaituta. Ikerketako zantzuen arabera, Zornotzan garai hartan zegoen odol-ospitaletik edo zuzenean inguruko gerra-fronteetatik eramandako milizianoen gorpuzkiak dira guztiak. Desobiratze lanak hilerriko eremu zehatz batean egin dituzte, kanposantura sartu eta eskuma aldean dagoen zelai karratuan. Gerra garaiko testigantzek eta dokumentazio historikoak ahalbidetu dute aurkikuntza, eremu horretan lurperatu zituzten-eta gerran hildako pertsonak. Hain zuzen ere, zelai zati hori ikutu barik egon da hamarkadarik hamarkada, eta zurezko gurutze bat izan du ondoan zutik, lur arlo horretan

gerran borrokaturikoak lurperatu zituztela oroitzeko. Zornotzarren memoria historikoak ahalbidetu du eremu hori gerra sasotik hona kanposantuko lanetarako erabili barik egon izana eta gorpuek orain-

tsu argitara irten izana.

Orain, Gogora Institutuak gorpuek identifikatzeko prozesua hasiko du. Hori dela eta, gerra zibilean Zornotza inguruan desagerturikoen familiei dei egin diete, Gogo-

ragaz hartu-emanetan ipintzeko eta balizko identifikazio prozesu bat hasteko. Hartu-emanetan ipintzeko, gogora@euskadi.eus helbidera idatzi edo 944 032 845 telefonora deitu behar da.



Desobiratze lanak Zornotzako hilerrian.

Eguzki plakak ipiniko dituzte Larrea Eskolako eraikin bietan eta kiroldegian

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak eguzki plakak ipiniko ditu Larrea Eskolako eraikin bietan (Luis Urrengoetxea kaleko eskolan eta Larreakoan) eta kiroldegian. 2024 hasieran ekin gura diete instalazio lanei. Udalak hiru proiektu kontratatu ditu horretarako. Birgaitu gura den eraikin bakoitzarentzat bat. Luis Urrengoetxeako eskolan 30 kW-tako potentzia duten plakak instalatuko dituzte. 60 kW-takoak Larreako eraikinean, eta 100 kW-takoak kiroldegian.

Energia sortzeko sistemak autokontsumo-modalitatean jardungo duela adierazi du udalak. Hau da, eraikinek eguzki energia baliatu ahal izango dute beren beharrian elektrikoetarako, eta, soberakinik batego, sare elektrikora bideratu ahalko dute. Udalak azaldu du egitasmoaren helburua ingurumen aztarna murriztea eta aurrezte ekonomikoa lortzea dela.

Zornotzako Barnetegiak sakelakoetarako aplikazioak sortu ditu euskara ikasteko

Hiru app sortu dituzte: BOGA programan oinarrituriko bi, A1 maila eta A2 maila trebatzeko baliagarriak direnak, eta Euskaltzaindiaren araukin trebatzeko beste bat. Doakoak dira


ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Barnetegiak sakelakoetara helarazi du euskara doan ikasteko aukera. Hiru app sortu ditu hizkuntza lantzen dabiltzanei laguntzeko. Aplikazioetariko bi A1 maila eta A2 maila lantzen dabiltzan ikasleei begirakoak dira (Boga1 eta Boga2). Horietan 15 istorio daude. Eta istorio bakoitza 10 saio edo unitatetan banatu dute. Lanketarako ba-

liabideen 470 bideo laburrekin osaturiko 15 istorio, 10.000 audio, 3.500 jarduera eta 700 gramatika azalpen txertatu dituzte. Horiei guztiei eskerrak, ikasleek hiztegia, gramatika, entzumena eta irakurmene landu ahal izango dituzte. Hirugarren aplikazioak Euskaltzaindiaren araukin trebatzea ahalbidetzen du. Bertan, ariketa laburrak eta zalantzarik ohikoenak jaso dituzte. Test era-

ko ariketak sartu dituzte, arauak lantze aldera.

Boga1 eta Boga2 aplikazioak eskuragarri daude Android eta iOS sistema eragilea darabilten gailuetarako. Euskaltzaindiaren araukin loturiko aplikazioa, oster, Android sistemarako baino ez dago erabilgarri. Aplikazioak Zornotzako Barnetegiaren web atarian deskargatu daitezke: www.zornotzakobarnetegia.eus



Zornotzako Barnetegiak sortutako aplikazioa.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA
2.500 bezerok gugan dute konfiantza

946 523 935
bertako.eus



Mallabiko eskolan gasoil bidezko berokuntza aerotermiagaitik ordezkatuko dute.

Eskolan aerotermita sistema ipintzeko, 121.000 euroko inbertsioa Mallabian

Trantsizio energetikoan aurrera egiteko inbertsio bat gehiago aurreikusi dute aurrekontuetan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Udalak aho batez onartu du 2024rako aurrekontua. Sarre-
rak eta irteerak 2.599.670 eurotan
parekatu dituzte. Zenbateko oso
horretatik 332.330 euro inber-
tsioetarako erabiliko dute. Hainbat
inbertsio energia berriztagarrien
ingurukoak dira, trantsizio ener-
getikoan aurrera egiteko. Esatera-
ko, 2024ko inbertsio nagusia ildo
horretatik doa. 121.000 eurogaz,
Mallabiko eskolako berokuntza eta
hozte sistema aldatuko dute: gasoil
bidezkoa kendu eta aerotermita era-

**Natura-ondarea babesteko,
Osmako perratokia eta
bide osasungarri berriak
berreskuratuko dituzte**

ko sistema berria ipiniko dute. Ae-
rotermia inguruneke airean bero
modura biltegitratzen den energia
da, espazio bat berotzeko edo hoz-
teko atera daitekeena. Energia ber-
riztagarrien arloan egingo duten
beste inbertsio bat Intxaurtin eta
Ansoagan argiztapena hobetzea

da. 30.000 euro erabiliko dituzte
zeregin horretan.

Inbertsioetako beste helburu
bat natura-ondarea babestea eta
berreskuratzea da. Ildo horreta-
tik, informazio panelak ipintzen
jarraituko dute, 9.000 eurogaz. Os-
mako perratokia eta bide osasun-
garri berriak ere berreskuratuko
dituzte, 18.500 eta 10.000 eurogaz,
hurrenez hurren.

Bestalde, aurrekontuan 60.000
euro aurreikusi dituzte Intxaurti-
ko urbanizazioa egiteko eta Zubite-
giko barandak ipintzeko.

"Arduraz, umiltasunez eta ilusioz, erronkaren tamainari erantzuteko lan egingo dut"

EH Bilduk Pello Otxandiano proposatu du lehendakarigai

OTXANDIO • J.D.

EH Bilduren Mahai Politikoak
Pello Otxandiano Kanpo (Otxan-
diano, 1983) proposatu du 2024ko
hauteskundeetan lehendakarigai
izateko. Astelehenean hasiko
den prozesuan, batzarkideek
hautagaitza berretsi beharko
dute orain. "Eskerrak eman nahi
dizkizuet guztioi. Kide, lagun eta
gertukoak. Militantziaren babesa
jasoz gero, arduraz, umiltasunez
eta ilusioz erronkaren tamainari

erantzuteko lan egingo dut, EH
Bilduren komunitatearekin bate-
ra. Aukera berriak ari dira zabal-
tzen. Balia dezagun abagunea",
adierazi du Otxandianok sare
sozialetan.

Otxandiano telekomunikazio
ingeniaritzan doktorea da, eta bi
alaben aita. Bere sorterriko zine-
gotzi izandakoa da lau urtez, eta
Sorturen birfundazio prozesuko
kide ere izan zen. Gaur egun EH
Bilduko programa zuzendaria da.

Pello Otxandiano zinegotzi izana da Otxandioko Udalean. **EH BILDU**

**BASERRIKO
PRODUKTUEN
AZOKA**

**Garai
Abenduaren 17an
Goizeko 11:00etatik aurrera**

Oharra: euria eginez gero, azoka frontoian egingo da



Martitzenean ipuin kontalari saioa egongo da Mañariko kultur etxean

MAÑARIA • J.D.

Datorren martitzenean,
18:00etan, adin guztiei zuzen-
duriko ipuin kontalari saioa
egongo da Mañariko Errose Bus-
tintza kultur etxean, Bego Ala-
bazan kontalariaren eskutik.
Gabonei loturiko ipuinak kon-
tatuko ditu. "Gabonak heltzen
direnean oporrak datoz, etxea
apaintzen dugu eta Olentzero
eta Errege Magoek opariak
ekartzen dizkigute. Ipuin saio
honetako ipuinekin jakingo du-
gu zein den munduko oparirik
onena, zelan antolatu daitekeen
jaiotza pertsonal, berezi eta
magikoa eta, batez ere, zein ga-
rrantzitsua den dagoeneko dau-
kagunagaz gustura sentitzea",
azaldu du Alabazanek.

Ospitaletan pailazoez egiten duten lanari buruzko berbaldia

Sven Verelst flandiarra Izurtzako Korralla gunean egongo da bihar; berbaldiak ikusmina eragin du eta bete dira plazak

IZURTZA • J.D.

Sven Verelst flandiarra Izurtza-
ko Korralla gunean dago egun-
tan. Trukerako programa bati
eskerrak etorri da. Clown arloan
espezialista da eta sarritan ospita-
letara joaten da gaixoei egonaldia
gozatzeri. Hain zuzen ere, lan
hori izango du berbagai zapatu
arratsaldean Izurtzako Korralla
sormen gunean emango duen
berbaldian. Plazak dagoeneko
beterik daudela adierazi dute an-
tolatzaileek.

Izurtzan dagoen bitartean,
Stargate ikuskizuna lantzen da-
bil Verelst. Datorren barikuan,
18:00etan, ikuskizun horren non-
dik norakoak azalduko ditu Korra-
lan. Sarrera doakoa da.

Sven Verelst Izurtzan egiten
dabilen egonaldia Binded Bodies
truke programari eskerrak gau-
zatu da. Flandesko eta Euskal
Herriko hainbat antzerki konpai-

**Hainbat antzerki
konpainiak sustaturiko
Binded Bodies
programari eskerrak
da posible egonaldia**

niak sustaturiko programa da,
hango zein hemengo Gobernuen
laguntzagaz. Sinergia berriak sor-
tzea eta jakintza partekatzea dira
helburuak.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

Eroskiko biltegian azpikontrataturiko langileak greban daude, "prekaritatea amaitzeko"

ELA sindikatuak esan duenez, grebak ia %100eko jarraipena izan du. Guztira, 130 langile egon dira lanuzteetara deituta

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eroskiko biltegian azpikontrataturiko langileak greban daude beharginak, Cecosa Hipermercados SL enpresagaz lan egiten dutenak, greban daude astelehenetik. Lanuzteek bihar arte, zapatua, iraungo dute.

ELA eta LAB sindikatuak azaldu dutenez, guztira 130 langile daude protestara deituta, eta lanuzteak ia %100eko jarraipena izaten ari dira. "Gehienak gizon arrazalatuak dira eta urteak daramatzate soldata minimoak kobratzen, txandaka eta jai egu-

netan lan egiten, zama handiak manipulatu, eta atsedan eguntan lan egitera behartuak izaten", azaldu dute sindikatuak. Hori dela eta, grebaren helburua "prekaritatea amaitzea" dela zehaztu dute.

Negoiazioetan maiatzetik

Sindikatuak gaineratu dute hau guzti hau maiatzetik datorrela, Cecosa Hipermercados enpresan "lehenengoz" haustekunde sindikalak egin zirenetik (ELAk sei ordezkari ditu, eta LABek hiru). Enpresa batzordearen esanetan, hainbat bilera egin dute enpresagaz lan baldintzak aztertzeko, baina ez dute hobekuntzarik lortu. "Horregaitik deitu dugu bost eguneko grebara", argitu dute.



Cecosa Hipermercados SL enpresako beharginak astelehenetik daude greban.

40 urtez laguntza txakurrak trebatzen Elorrión

Elkarteak oroigarri bat oparitu dio udalari, elkarlanarengaitik



Elorrioko Udaleko kideak Laguntza Taldekoegaz.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1983an Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea sortu zuten, eta, harrezkero, txakurrak trebatzeko eremua eta egoitza soziala San Agustinen dute. Elkarateak Elorrioko Udala bidelagun izan du hasieratik, eta orain arte osa-

turiko ibilbide oparoagaitik eta egiten duten borondatezko lan nekaezinagaitik aitortza egin diete.

Asteburuan egin zuten aitortza egiteko ekitaldia, Elorrión, International Rescue Organisation probak zeudela aprobetxatuta.

Baso Biziak plataformak deituta, zuhaitzak landatuko dituzte Atxondon

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Biharko basoak gaur hasten dira lelopean, ekimen sorta egiten dabilta aste honetan Atxondon. Atzo, esaterako, Tantai Baso Jabe Kooperatibak *Pinuak badu alternatibarik?* berbaldia eman zuen pleno aretoan.

Domekan, abenduak 17, txangoa eta zuhaitz landaketa egingo dituzte. Baso Biziak plataformak Atxondoko Udalgaz antolatuta duen ekimena da, eta 9:00etan hasiko da, Apatamonasterioko plazatik.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, txangoan eta zuhaitz landaketan parte hartzen duten herritarrei hamaiketako emango diete.

Gora Etorri, DJ Kool eta DJ Gartzzi, zapatuan, Abadiñoako Elkartasun asteburuan

Elkartasun asteburuari hasiera emango diote gaur, 'Tipularen sehaska kanta' dokumentalaren proiektioagaz



Gora Etorriko kideak.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoñ jada urteroko ohitura bihurtu den Elkartasun Asteburu egingo dute asteburu honetan; gaur, abenduak 15, eta bihar, abenduak 16. Gaurko 19:00etan emango diote hasiera egitarauari, *Tipularen sehaska kanta* dokumentalaren proiektioagaz. 19:00etan izango da, Txanporta Kultur Etxean.

Zapatuan 13:00etan hasiko dute eguna, BBK aurrean egin-

go duten elkarretaratzeagaz. 14:30ean herri bazkaria egingo dute Traña-Matienako frontoian, eta, ondoren, bingo musikatua eta karropoteoa.

Egunari amaiera emateko, kontzertuak egongo dira Isiotu Kultur Elkartean. 20:00etan DJ Kool musika ipintzen hasiko da; ondoren, Gora Etorri talde durangarrak emango du kontzertua. Herriko DJ batek emango dio amaiera egitarauari, DJ Gartzzik.

Yanire Granero omenduko dute Gabonetako azokan

Traña-Matienako eskoletako aterpean egingo duten azoka domeka honetan izango da, abenduak 17

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domekan Traña-Matienan egingo duten Gabonetako azokan Yanire Granero omenduko dute. Granerori bularreko minbizia diagnostikatu zioten 2016an, eta berri txar hura jaso eta berehala ekin zion haren kontra borrokatzeari. Diseinatzaile abadiñoarrak proiektu solidario bat ere ipini zuen martxan: Memiimo diseinu tailerra. Granerok hainbat lan egin zuen Memiimo markaren aterkipean. 2023ko uztailean hil zen gazte abadiñoarra.

Orain herrikideek omenaldia egingo diote Granerori. Domekan izango da, Traña-Matienako eskoletako aterpean egingo duten azokan.

Azoka 11:00etatik 15:00etara izango da; 18 artisau eta ekoizleek parte hartuko dute bertan

Azokan parte hartuko duten artisau eta ekoizleek saski bat zozkatuko dute. Saski horregaz lorturiko dirua minbiziaren aurkako ACAMBI elkarteari emango diotela azaldu dute.

Azoka 11:00etatik 15:00etara bitartean izango da eta artisauen eta ekoizleen hamazortzi postu egingo dira guztira. Bertan, besteak beste, ogia, gozogintzako produktuak, arropa eta bitxiak egingo dira salgai.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

Nai Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

pröktós.clinic

**Uzki eta zoru-pelbikoko
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Podologia**
PSE: 214/06



Adinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374


PSE: 119 -13



anboto
kide

Anbotokideen txokoa

ABENDUKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.



Maluta zirku galarako sarrera bikoitza. Abenduaren 29an San Agustinen.



Olatz eta Iñaki Salvadorren kontzerturako sarrera bikoitza. Abenduaren 29an Berrizko Kultur Etxean.



Ping-Pang antzerkirako sarrera bikoitza. Abenduaren 29an Zornotza Aretoan.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Bizkaiko Bertsolari Txapeletako finala: Aimara Arostegi Uriagereka
Errigorako otzara: Pilar Bilbao Zarandona

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



Aitor Monje eta Karmen Amezua berriztarrek.

“Inoiz ere ez da erraza maite duzun norbait galtzea, baina berba eginez beste era batera onartzen duzu”

'Hitz egin dezagun heriotzaz' jardunaldiak antolatu dituzte Berrizen, bigarren urtez

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Ingurukoak galtzeak gurutzatu zituen Aitor Monje eta Karmen Amezua berriztarren bizitzak. Dolu prozesuak gune desberdinetan elkartu zituen eta prozesu horretan izandako gabeziak betetzeko, eta jasoriko ekarpena bueltatu guran, Hitz egin dezagun heriotzatz jardunaldiak antolatu zituzten iaz, lehenengoz. Aurten, berriro ere antolatu dituzte. Euskal Herrian geroago eta gehiago dira horrelako esperientziak partekatzen dituzten guneak, baita Durangaldean ere. Mallabian, adibidez, berbaldia antolatu dute gaurko. Gabonetan, dolua bizitzeari buruz arituko dira Isabel Garitagoitia, Igone Amesti eta Karmen Amezua. Berrizen, hilaren 21ean, eguena, Iratxe Lejarretak eta Valen Estebanek euren testigantza emango dute, Kultur Etxean, 19:00etan.

Heriotzari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte aurten ere. Pozik harreragaz?

Karmen Amezua: Gertuko baten galerak guran sorturiko horretan sakontzeko, edo horri buruz berba egiteko, zenbait tokitan elkartu ginen Anakotz Lasarte, Aitor eta hirurok. Konturatu ginen ezinbestekoa zela heriotzaz edo doluaz berba egitea. Heriotza hor dago eta berba egiten ez ba-

dugu, heltzen denean ez gaude prest. Inoiz ere ez da erraza izango maite duzun norbait galtzea, baina berba egin ahala beste era batera onartzen duzu. Heriotza hor dago, bizitzaren parte da, eta horretaz berba egin behar da. Gure helburua ez da inor horretara derrigortzea, baina gura duen

Heriotza hor dago eta berba egiten ez badugu, heltzen denean ez gaude prest

partsonari toki bat eskaini gura diogu, aukera hori eman. Ikasi ere egiten da, gainera. Berba eginez gero, zerk lagundu dezakeen edo zerk ez ikusi dezakegu.

Aitor Monje: Dolua prozesu bat da, norberak egiten duen lan bat. Berba egiteak lagundu egiten dio ondokoari, baina baita norberari ere. Jendearen aurrean berba egiteak unibertsal den gai bat normalizatzen lagundu dezake. Pozik gaude jendearen erantzunagaz, jende asko etorri zelako iaz, eta baita aurten ere. Hala ere, ez dugu hau kopuruagaitik antolatzen. Ate bat zabaltzea bilatzen

dugu, zelanbait; partekatzeko beharrezko duenak espazio hori izan dezan gura dugu, berba egiteko.

Zelan egin aurre dolu prozesuari?

K. A.: Dolua prozesu indibidual bat da; ez daude bi, ez daudelako pertsona bi berdinak. Gehituko nuke, galera bera izanda ere, prozesua desberdina dela. Nire kasuan, semea hil zen, eta etxean hiru geratu gara; bakoitzak bere prozesua darama, galera bera izan arren. Bakoitzak ahal duen moduan egiten dio aurre minari. Nire kasuan, heldu zen momentu bat, ikasitako guttia beste norbaiti lagungarria izango zitzaioela uste nuena. Eta partekatzeak niri ere on egiten dit, jakina, beti ikasten dudalako zerbait. Baliagarria da ikusten duzulako inguruan badela beste norbait kezka berdinekin, ez zarelako muntstro bat.

A. M.: Heriotza estali egiten da, isilarazi egiten da, baina beharrezko bat dagoelako berba egiten da horri buruz. Jendeak behar du berba egitea, edo entzutea, edo dena delakoa, eta horren adibide da mota honetako jardunaldien kopuruaren gorakada. Pandemiaren eraginez, sentsazio hau areagotu egin dela esango nuke, jende asko bakarrik sentitu delako.

Domeka honetan, baserriko produktuen azoka egingo dute Garaiko plazan

Tokiko produktuekin osaturiko dozena bat postu egongo dira. Baita taloak eta edaria eskainiko dituen txosna ere

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak eta Urkiola Landa Garapenak baserriko produktuen azoka antolatu dute hilaren 17rako, domeka honetarako. 11:00etan hasita, herriko plazan eskualdeko dozena bat baserriar egongo dira eurek landuriko produktuak

saltzen. Besteak beste, produktu hauek izango dituzte salgai: ardi eta behi gazta, ortuariak, kontserbak, garagardoa, baserriko ogia, gozokiak, txerriak, ahatekia, txakolina, sagardoa, txokolatea eta eztiak. Era berean, plazan bertan txosna txiki bat ipiniko dute eda-

ria zein txorizoagaz eta urdaiagaz beteriko taloak saltzeko. Euria bada, azoka frontoian egingo dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Udalak adierazi duenez, azokak helburu hauek ditu: baserriarrei eta elikagaien ekoizleei euren produktuak plazaratzeko eta saltzeko aukera eskaintzea, eta garaitarrei zein eskualdeko biztanleei kalitatezko elikagaiak eskuratzeko aukera eskaintzea. Egitasmoaren beste helburu bat bertako produktuak erosteko kontzientzia sortzea eta eskualdeko elikadura-komunitatea indartzea dela ere adierazi du udalak.

Garaiko baserriarren azoka 2019ko Gabonetan egin zen lehenengoz. Jada urteroko hitzordua da Garaiko herritarrentzat zein eskualdeko biztanle askorentzat.



Garain 2019an egindako azoka.

Mankomunitateak umeei eta gurasoek euskaraz jolasteko programa abiatu du

20 saio egingo dituzte eskualdeko hainbat herritan, 3tik 5 urte bitarteko umeentzat eta euren familientzat



Mankomunitatearen egoitza Durangoko Elkartegian dago.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Egitasmoak *Familian euskeraz olgetan* du izenburu eta programa honeguz euskaraz jolasteko baliabideak eta euskara erabiltzeko guneak eskaini gura dizkiete umeei eta familiei. Saioak ludikoak izango dira, ordu bete iraungo dute, eta euskara bi- zipen positiboekin eta gozamenagaz lotzea dute helburu. Programa hauek 3tik 5 urtera bitarteko umeentzat eta euren familientzat direla aurreratu dute antolatzaileek.

Jardunaldiak azaro amaieran hasi ziren, eta abenduan zehar egongo dira martxan, herri hauetan: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar. Guztira, 20 saio egingo dituzte. Jardunaldietan debalde parte hartu daiteke, baina plazak mugatuak direnez komenigarria da alde aurretik izena ematea. Argibide gehiago 946 278 640 telefonoan edo euskara@dma.eus helbidean topatu daiteke.

Iurretan Bidebarrieta kalea oinezkoentzat bihurtzeko lanak hasi dituzte

2024rako aurrekontuan dirua gorde dute Bizikleta Planagaz jarraitzeko eta Dantzari plazako irisgarritasuna hobetzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udala dagoeneko hasi da Bidebarrieta kalea birgaitzeko lehen pausoak ematen. Udalak kotxeak kendu gura ditu kale horretatik, N-634 errepide nagusiaren beste aldean aparkaleku berria eginda; 95 plaza izango ditu. Behin kotxeak kaletik kenduta, 1.000 metro koadroko espazioa sortu gura dute oinezkoentzat. Udalak fase bitan egingo du hori. 450.000 euroko aurrekontua dute lanak egiteko.

Bidebarrieta kalea oinezkoentzat egiteko lanen lehenengo zatia datorren urtean hasita aurreikusitako, gasolindegitik HAZeraino. Baimenduriko ibilgailuak baino ezingo dira sartu bertara. Hala ere, sarbidea arautzeko ordenantza landuko du udalak. Bigarren zatia HAZetik Batzoki pareraino joango da. 2024ko aurrekontuan mugikortasuna hobetzeko beste zenbait proiektu ere batu ditu udalak. Arriandiko Akiñena pa-

sabideko igogailua eraikitzeko (75.000 euro), Bizikleta Planaren jarraipena gauzatzeko (100.000) eta Dantzari plazako irisgarritasuna hobetzeko (50.000 euro) dirua lotu dute inbertsioen atalean.

Iurretako Udalak 7,1 milioiko aurrekontua izango du 2024an, azken urteetako handiena

Bestalde, kultura arlorako 820.000 euro ipiniko dituzte, hezkuntzarako 390.000, eta gizarte ekintza eta berdintasunerako 303.000. Aisialdi eta kirol arlorako 420.000 euro gorde dituzte.

EAJk eta PSE-EEk azken urteetako aurrekonturik handiena onartu dute, 7,1 milioi euro. Inbertsioek 775.000 euro hartuko dituzte. EH Bildu abstenitu egin da.

Zaldibarko 78 argi puntutan LED teknologia ipiniko dute

Zaldibarko Udalak 50.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egingo du teknologia aldatzeko

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udalak telegestiodun LED teknologia ipiniko du 78 argi puntutan. Horretarako, 51.178,84 euroko inbertsioa egingo du. Inbertsio horretatik 10.244,77 euro Zaldibarko Udalak ipiniko ditu, eta gainerako zatia Bizkaiko Foru Aldundiak emaniko diru laguntza

bategaz ordainduko da. Aldaketa-gaz, udalak energia kontsumoaren %80 aurrezteko itxaroten du, ohar batean adierazi duenaren arabera. "Urtean 75.808kWh aurrezteko espero dugu energia kontsumoan, eta alde ekonomikotik 16.678 euro aurreztuko dugula uste dugu", azaldu dute.



Zaldibar.



Jon Gomez eta Iñaki Ortiz de Villalba iazko edizioan. OXABI

ANBOTOk Jai Alai jaialdirako sarrera bi zozkatuko ditu Anbotokideen artean

Urtean 30 euro ordainduta, egin zaitez Anbotokide eta parte hartu zozketa eder hauetan

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abenduaren 23an Gernikako Jai Alai frontoi historikoan egingo den Jai Alai musika jaialdirako sarrera bi zozkatuko ditu ANBOTOk Anbotokideen artean. Jaialdia 18:30ean hasiko da eta musika talde hauek arituko dira: Ziraun, Bengo, Kerobia eta Oxabi. DJ Bull ere egongo da, musika ipintzen.

Zozketan parte hartu gura dutenek www.anboto.org atarian sartu eta izena eman dezakete bertan.

Hainbat zozketa

ANBOTOk hainbat zozketa egingo ditu Anbotokideen artean astero-astero, eta horietariko bat da hau. Zozketa hauetan parte hartu gura baduzu, egin zaitez Anbotokide urtean 30 euroren truke.

Politikan

Paule Sanchez
Arieta-Araunabeña
EAJ



Izena badu, bada

Indarkeria matxista emakume eta nesken duintasuna, integritatea edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen edozein indarkeria da.

Biolentzia hori modu askotan ematen da. Fisikoa edo emozionala izan daiteke, zuzenean edo zeharka eragindakoa, ezkutukoa, banakakoa, taldekakoa eta helburu jakinarekin: biktimek euren borondatez onartzen ez duten ezer eskuratzeko edo beste barik hauei min emateko.

Erregistro ofizialek arazoaren lagin txiki bat adierazten dute. Beste faktore askoren artean, indarkeria mota jakin batzuk identifikatzeko zailtasunak daude eta, ondorioz, eraso guztiak ez dira azaleratzen.

Etengabeko erronka da, eta guztiz beharrezkoa ere, biolentzia matxista guztiei aurre egiteko horiei izena jartzea. Indarkeria matxista identifikatuz eta horren inguruko kontzientzia hartuz, lortu genezake biolentzia hori jasan izan duten biktimei erantzun egokia emateko baliabide aproposak eta pairatutakoaren ondorioak nolabait erreparatzea.

Gainera, bortizkeria izendatu eta identifikatzea, babes eta prebentzio neurriak indartzen jarraitzeko beharra azaleratzen laguntzen du, eta gizarte-gaitz hau desagerrarazteko kontzientzia handiagoa sustatzea ere ahalbidetu dezake.

Indarkeria matxisten kontzientziazioan, sentsibilizazioan eta detekzioan lan egiten jarraitzea ezinbestekoa da.

Euskal esaera batek dioenez, "izena badu, bada". Beraz, izena duenean delako, eta denean bakarrik errotik ezabatze lanketak egin daitezkeelako, jar diezaiozun izena indarkeria matxista mota orori.

Durangaldea asteen

Abenduaren 17an tokiko produktuen eta artisauen azoka egingo dute Otxandion

OTXANDIO I Domeka honetan, abenduak 17, tokiko produktuen eta artisauen azoka egingo dute Otxandion. Azokak 10:00etan zabalduko ditu ateak, eta 15:00ak bitartean produktuak dastatu eta erosteko aukera egongo da. 12:00etan herri kirolak egongo dira. Eta 13:00etan Urbiribil dultzaineroek poteoa girotuko dute.

Zigilu historikoen erakusketa zabaldu dute asteen Elorrión, Iturri Kultur Etxean

ELORRIO I Elorrioko Elkarte Filatelikoak XIX. erakusketa antolatu du. Abenduaren 29ra bitartean bisitatu ahal izango da. Aurten, Berriotxo Abesbatza omenduko dute bertan, zigilu eksklusibo batez. Omenaldi ekitaldia abenduaren 29an izango da. Ekitaldi nagusia 12:00etan izango da eta 14:00etan ibilaldia egingo dute. Ondoren, elkarregaz bazkalduko dute.

Abadiñarrek abenduaren 22ra arte eman dezakete botoa aurrekontu parte hartzaileetan

ABADIÑO I Abadiño herriarrek abenduaren 22ra arte izango dute aukera aurrekontu parte hartzaileetan botoa emateko. Udaltik jakinarazi dutenez, aurrez hautaturiko 24 proiekturen artean aukeratu beharko dute herriarrek. Botoa udal eraikinetan zein Internet bitartez eman daiteke.



Martxa solidarioa egingo dute domekan, migratzera behartuta dauden emakumeen alde

DURANGO I 'Biltari' martxa solidarioak bigarren aldia egingo du domekan. San Jose Jesuitak ikastetxeak eta Alboan Gobernu Kanpoko Erakundeak Migratzaileen Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute eta emakume migratzaileen egoera ikusaraztea, salatzea eta horren inguruan kontzientziaztea da helburu nagusia.

Martxa Ezkurdi plazan hasiko da, 11:00etan, eta zazpi kilometrokoa izango da. Izen ematea biltari.alboan.org webgunean egin daiteke, gaur arratsaldera bitartean.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

ESKELAK

946 816 558 • anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.





Gabonak 2023



MAITEMINTZEN
DUTEN
Gabonak
Gabon zoriontsuak eta Urte berri on!



Gabonak 2022

ABADIÑO

Abenduak 14, eguena

18:30 'Cosas que escribí cuando nadie miraba'. Elena Carro del Río. Liburu aurkezpena. Udal Mediatekan.

Abenduak 16, zapatua

Egunean zehar Gabon kantak De Norte a Sur Taldearen eskutik, Abadiñoko kaleetan.

10:30 Open Kick Boxing Probalekuan.

Abenduak 17, domeka

11:00 - 15:00 Neguko azoka eta erakusketa Traña-Matiena Eskolako aterpean.

Abenduak 22, barikua

17:00 - 19:00 Haurrentzako Gabonetako tailerrak Traña-Matienako frontoian.

Abenduak 23, zapatua

09:30 - 14:00 Gabonetako Xake Txapelketa Traña-Matienako frontoian.

20:00 - 23:00 DJ Kool Traña plazan.

Abenduak 24, domeka

09:00 Gabonetako Astxikira igoera Txanporta plazan.

11:30 Gabonetako lasterketa Muntzaratzen.

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira

Traña-Matiena, Muntzaratz, Txanporta.

Abenduak 26, martitzena

17:30 'Emozio festa' haur ikuskizuna. Ene Kantak. Errota Kultur Etxea.

Abenduak 27, 28, 29

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Umeen Gabonetako jolaslekua. 0 urtetik 9 urtera Probalekuan. 10 urtetik aurrera Traña-Matienako frontoian.

Abenduak 28, eguena

19:30 Gabonetako kontzertua San Trokaz elizan.

Abenduak 29, barikua

19:00 Gabonetako kontzertua. Herri Maite Akordeoi taldea Errota Kultur Etxean.

Urtarrilak 30, zapatua

09:30 Euskadiko ziklo-kros txapelketa Muntzaratzen.

Urtarrilak 5, barikua

18:00 - 20:00 Erregeen Kabalkada Muntzaratz, Zelaieta, Traña-Matiena.

Urtarrilak 6, zapatua

22:00 Erreginen gaua. Yougurinha Borova eta Aurori Badiola Isiotu elkartean.

Urtarrilak 7, domeka

19:00 Bakarrizketa: Julen Axpe Errota Kultur Etxean.

ATXONDO

Abenduak 22, barikua

Olentzero kantari Apatan.

Abenduak 24, domeka

Baserririk baserri Olentzero Kantari Axpen eta Arrazolan.

Abenduak 26, martitzena

Goizean, Jokai egurrezko jolasak Apatako plazan.

Abenduak 28, eguena

18:00 Lur Korta ipuin kontalaria Liburutegian.

BERRIZ

Abenduak 24, domeka

9:30 Olakueta plazan, auzoetara joateko.

17:30 Olentzero eta Mari Domingigaz irteera Berrizko udaletxetik probalekura. Animatu eta baserritar jantzita etorri.

Abenduak 27, eguaztena

17:00 'La Patrulla canina: la superpelícula' Berrizko Kultur Etxean.

Gabon jaiak Berrizen

Abenduak
24

Olentzero eta Mari Domingi

9:30 Olakueta Plazan, auzoetara joateko.

17:30 Olentzero eta Mari Domingirekin irteera Berrizko udaletxetik probalekura. Animatu eta baserritar jantzita etorri!

Abenduak
27

Zinea

17:00 1a patrulla canina: la superpelícula Berrizko Kultur Etxean

Abenduak
28

Familia ikuskizuna

18:00 Iratxoak eta basoko sorginkeria -Gookapi Berrizko Kultur Etxean

Abenduak
29

Kontzertua

19:00 Olatz Salvador & Iñaki Salvador "Familia artean" Berrizko Kultur Etxean

Abenduak
30

Zinea

17:00 Teddy, la magia de la Navidad Berrizko Kultur Etxean

Urtarrilak
3

Gabonetako haur parkea

12:00 - 13:30 | 16:00 - 19:00
Olakueta frontoian.

Urtarrilak
5

Errege eguna

17:30 Erregeen kabalgata. Komentulik Olakueta plazara. Txokolata.

Zorionak eta Urte Berri On!

Gabonak 2022

Abenduak 28, eguena

18:00 'Iratxoak eta basoko sorginkeria'. Gookapi. Familia ikuskizuna Berrizko Kultur Etxean.

Abenduak 29, barikua

19:00 Olatz Salvador & Iñaki Salvador Familia artean Berrizko Kultur Etxean.

Urtarrilak 30, zapatua

17:00 'Teddy, la magia de la Navidad'. Berrizko Kultur Etxean.

Urtarrilak 3, eguena

12:00-13:30/16:00-19:00 Gabonetako haur parkea Olakueta frontoian.

Urtarrilak 5, barikua

17:30 Erregeen kabalkada. Komentutik Olakueta plazara ino. Txokolatea.

DURANGO

Abenduak 16, zapatua

10:00 - 20:00 Inurri Skaut Taldearen feria Andra Mariko elizpean.

12:30 Show Cooking: Euskal-uruguaitar sukaldaritza. Merkatu plazan.

13:00 Durango Kantari. Egundo taldea. Alde Zaharretik zehar.

10:00 - 20:00 Inurri Skaut Taldearen feria Andra Mariko elizpean.

10:00 - 20:00 Inurri Skaut Taldearen feria Andra Mariko elizpean.

12:30 Show Cooking: Euskal-uruguaitar sukaldaritza. Merkatu plazan.

13:00 Durango Kantari. Egundo taldea. Alde Zaharretik zehar.

17:00 Txokolatada Auzo Alai elkartearen eskutik. Madalenen. Auzo Alai Elkarte.

17:00 - 19:00 Umeentzako tailerrak eta jolasak Andra Mariko elizpean. Inurri Skaut.

17:15 Aurpegi Margoketak eta DJ Gabi Madalenen. Auzo Alai Elkarte.

18:00 Inurri Skaut Taldearen Gabon jaia Andra Mariko Basilikan.

18:30 - 19:30 Kriskitin Dantza eskola eta trikitixa. Madalenen. Auzo Alai Elkarte.

19:30 - 21:00 Karaokea Madalenen. Auzo Alai elkarte.

20:00 Otzararen zoketa Madalenen. Auzo Alai Elkarte.

20:15 Arandoño Kultur Elkartearen kontzertua. Zinema mutua, musikaz lagunduta. 'El mayorazgo de Basterretxe' (Azkona anaiak, 1928)

21:00 Gabon zaharretako kanpaiak Madalenen. Auzo Alai Elkarte.

21:15 - 00:00 DJ Gabi.

Abenduak 17, domeka

13:00 Jaizale txistulari taldearen Gabonetako kontzertua San Frantzisko elizan.

19:00 Tabira Musika Bandaren kontzertua Plateruena Kultur Aterpean.

Abenduak 22-23, barikua eta zapatua

11:00 - 21:00 Eixu artisau elkartearen azoka Andra Mariko elizpean.

Abenduak 22 - urtarrilak 7

Izotz pista Landako Gunean.

Abenduak 23, zapatua

16:30 Jolas Eguna Tabirako parkean. Euria bada, San Antonio ikastetxean.

20:00 Durangoko Orfeoa, Doinuzahar abesbatza eta lurretako abesbatza Andra Mariko elizan.

Abenduak 24, domeka

18:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira Frai Juan Zumarraga institututik hasita. Ibilbidea: Institutua - Ermodo - Zumalakarregi - Ezkurdiko kioskoa. Euria bada, Landako Gunean.


Abenduak 26, martitena

11:30 Jolas Eguna San Fauston Euria bada, San Faustoko frontoian.

16:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots Landako Gunean.*

19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots Landako Gunean.*

*'Ez gara jaitsiko!' ikuskizuna. Sarrerak abenduaren 15etik aurrera salgai Kutxabanken eta Arte eta Historia Museoa (5 euro).



Abenduak 21 Mari Domingi eta Olentzerori idatzitako gutunak. Sarien zoketa liburutegian.

21:30ean III. EMAKUMEEN OLAZAR PILOTA TXAPELKETA (4 ½): Finalerdia
Jarraian XXXVI OLAZAR PILOTA TXAPELKETAKO FINALERDIA

Abenduak 22 HAUR ANTZERKIA:
OLENTZERORI...ZER GERTATZEN ZAIO?
17:00etan Olazar pilotalekuan

Abenduak 24 BADATOK MARI DOMINGI ETA OLENTZERO
HERRI EKIMENA!!!
12:00etan HARRERA Olazar kalean.
12:30ean ONGI ETORRI jaialditxoa San Martin plazan.
Eskutitzak zuzenean emateko eta txupeteak lagatzeko aukera.

Abenduak 26 SAN ESTEBAN EGUNA
18:00etatik aurrera eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.

Abenduak 27 eta 28 UMEEN GABONETAKO PARKEA
12:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00 Eskolako kiroldegian.

Abenduak 29 ANTZERKIA: HONDAMENDIA
19:00etan Olazar pilotalekuan

Abenduak 31 16:00etan III. EMAKUMEEN OLAZAR PILOTA
TXAPELKETA (4 ½) : Finala
jarraian XXXVI OLAZAR PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK.
17:00etan IX. SAN SILVESTRE LASTERKETA.
Irteera udaletxeko plazatik.

Urtarrilak 1 IGOERA SANTAMARINAZARRERA
10:30ean Talde argazkia tontorrean eta hamarretakoa Olazarren.

Urtarrilak 5 ERREGEEN DESFILEA
18:00etan Agarre parketik (San Andres) hasita
Erregeen kabalgata.



Gabonak 2022

Abenduak 26 eta 27, martitzena eta eguaztena

11:30 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Txu Txu Trena Elkar-tegiaren aurrealdean, Dendak Bai elkartearen eskutik.

Abenduak 27, eguaztena

11:30 Jolas Eguna Murueta Torre auzoan. Euria bada, Landako Eskolan

Abenduak 28, 29 eta 30

11:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00 Umeen Gabonetako Parkea Landako Gunean (Umeak doan. Helduak euro 1).

Abenduak 29, barikua

18:00 Dantzaro: Lorratz taldea. Andra Mariko elizpean.

Abenduak 30, zapatua

20:00 Arandoño Kultur Elkartearen Gabonetako kontzertua, Mikel Ansola organistagaz eta Akelarre abesbatzagaz. Zuzendaria: Xabier M. Aretxabaleta. Andra Mariko basilikan.

Abenduak 31, domeka

18:00 Arandoño Kultur Elkartearen Gabon zaharreko kontzertua Benantzi Bilbaogaz, Andra Mariko basilikan.

Urtarrilak 2, 3 eta 4

11:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00 Umeen Gabonetako Parkea Landako Gunean (Umeak doan. Helduak euro 1).

Urtarrilak 5, barikua

18:45 Errege Magoen kabalkada Fray Juan Zumarraga institututik hasita. (Ibilbidea: Institutua - Ezkurdi - udal plaza - Andra Maria - San Fausto).

Urtarrilak 6, zapatua

18:00 JAEDen ongintzako zozketa Andra Mariko elizpean.

Urtarrilak 13, zapatua

20:00 Bogoroditsie abesbatzaren kontzertua San Franzisko elizan.

ELORRIO

Abenduak 15, barikua

21:30 Baba-jana. Gaztetxean.

Abenduak 17, domeka

11:45 Santxibiri herri lasterketa (Umeak).
12:30 Santxibiri herri lasterketa. 5 km (Helduak).
12:30 Kalejira: Berrio-Otxoa orfeoia + Fanfarrixo Txaranga + Zaldibarko Korala.

Abenduak 19, martitzena

19:00 Konbo eta biolin kontzertua Gaztetxean.

Abenduak 21, eguena

18:30 Gabonetako kontzertua. Musika Eskolako ikasleak eta Haize Arroza taldea.

Abenduak 22, barikua

20:00 'Pasión de Falla': Jose Luis Nietoren piano kontzertua Arriolan.

Abenduak 23, zapatua

22:00 Bertso afaria Gaztetxean.

Abenduak 24, domeka

10:30-15:00 V. Gabonetako artisau eta sortzaileen azoka Herriko plazan.
18:00 Olentzero eta Mari Domingi Elizpean.
00:00 Gaztetxea Zabalik.

Abenduak 26-28

11:30-13:30 / 16:30-19:30 Haur Parkeak.

Abenduak 27, eguaztena.

18:00 Futbolin txapelketa.

Abenduak 29, barikua

18:00 'Back 2 Classics' antzerki zirkua. Planeta Trampoli konpainia Arriolan.

Abenduak 31, domeka

01:00 Etxeko DJak Gaztetxean.

Urtarrilak 2-3-4

11:30-13:30 / 16:30-19:30 Haur Parkeak.

Urtarrilak 5, barikua

Errege Magoak elizpean.

GARAI

Abenduak 20, eguaztena

19:00 Gabon kanten entsegua Andeka Gorrotxategigaz Otea Loran elkarte.

Abenduaren 22tik 29ra

Gabonetako marrazki lehiaketa. Udaletxeko arkupean kutxa bat egongo da marrazkiak bertan sartzeko.

Abenduak 24, domeka

10:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira baserri-rik baserri. Amaieran, herri bazkaria Otea Loran elkarte.

17:00 Olentzero eta Mari Domingi herriko plazan.

Abenduak 29, barikua

18:00 Umeentzako pelikula eta txokolatada Kultur Etxean.

Abenduak 31, domeka

10:00 Arakaldora irteera herriko plazatik hasita. Bueltan, kopaua eta marrazki lehiaketako sari banaketa.

IURRETA

Abenduak 15, barikua

Gabonetako tailerretan izena emateko azken eguna Ibarretxe kultur etxean.

Iurretako Gutun-postal lehiaketan parte hartzeko azken eguna.

09:00-12:30 / 16:30-19:30 Iurretako Elkartasun Azoka Ibarretxe kultur etxean.

Abenduaren 18tik 20ra

20:00 Abenduko koplen entsegua plazan.

Abenduak 22, barikua

Olentzerori gutunak Ibarretxe kultur etxean.

10:15 / 10:45 'Hiru lumak' txotxongilo ikuskizuna (Rosa Maria Martinez). Hurrenez hurren, 2-3 urteko umeentzako eta 4-5 urteko umeentzako saioa (Ibarretxe kultur etxea). Eskolekin hitzartuta.

11:00 'Magia parrastan' (Imanol Ituño). 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta Ibarretxe kultur etxean. Eskolekin hitzartutako saioa.

17:00 / 17:45 'Ipuin ibiltaria' (Ridouane Chakoich Laman). Hurrenez hurren, 3-5 urteko umeentzako eta 6 urtetik gorakoentzako saioa Ibarretxe kultur etxean.

19:00 'Historias de arena y sal' (Ridouane Chakoich Laman) helduentzako ipuin kontalaria, Ibarretxe kultur etxean.



Gabonak 2022

Abenduak 23, zapatua

10:00 Abendu koplak, etxerik etxe. Irteera Aita San Migel plazan.

Abenduak 24, domeka

12:00 OIentzero eta Mari Domingiri harrera Aita San Migel plazan. Ondoren, **kalejira trikitilariak alaituta herrian zehar** euria bada Askondon. Baserritar jantzita joatera gonbidatu dituzte herritarrek.

Abenduak 27, eguaztana

11:30 Haurrentzako ipuin kontalaria: 'Animalien istorioak' (Maidar Alcelay), 3-5 urteko umeentzat Ibarretxe kultur etxean.

12:00 Haurrentzako ipuin kontalaria: 'Bazen behin herri-txo batean...' (Maidar Alcelay), 6 urtetik gorako umeentzat Ibarretxe kultur etxean.

Abenduak 26-27

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Txu-txu tren, Korreoseko geltokian (doan).

Abenduak 27-30

17:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea Kepa Arroitauregi frontoian.

Urtarrilak 1, astelehena

09:30 Urte Berri eguneko igoera Gallandara Zaldai Mendi Taldea, lurretako plazan, taldean igotzeko.
11:00 Tontorrean familia argazkia egingo da.

Urtarrilak 2-3-4

Gabonetako tailerrak: Txiki Chef (Gabonetako errezeta bereziak). Plazak mugatuak dira eta aurretiaz izena eman behar da.

Urtarrilak 5, barikua

17:30 Errege Magoen kabalkada Askondon. Errege Magoei harrera egingo zaie eta umeek eurekin egoteko aukera izango dute. Bien bitartean, **txokolatea eta elkartasun opila** banatuko da.

MALLABIA

Abenduak 15, barikua

18:00 Berbaldia: 'Gabonak dira eta etxean aulki huts bat dugu. Nola bizi dolua Gabonetan'. Hizlariak: Isabel Garitagoitia Gallastegi, Igone Amesti Bustinzuriaga eta Karmen Amezua Urzelai. Kontzejuzarreen.

Abenduak 17, domeka

11:00 Multikirola, herriko frontoian.
16:00 Bingoa eta mahai jolasak, Kontzejuzarreen.

Abenduak 22, barikua

17:30 Petanka txapelketa, herriko frontoian. 12 urtetik gorakoentzat.

Abenduak 24, domeka

10:45 Topagunea petrilean Gabonetako kantak abesteko.

11:00 Kalerik kale kantu kantari trikitilari eta panderojole gazteekin. Ondoren, **udaletxe atzeko zuhaitza apaindu.** **Mallabiko musikariek giroa alaituko dute.**

12:30 OIentzero eta Mari Domingiri ongi etorria udaletxe ondoan. Gero, plazara OIentzero eta Mari Domingigaz, bertan gutunak jasotzeko.

18:30 OIentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileek opariak banatuko dituzte, herriko frontoian.

Gogoratu:

Baserritar arropa jantzita etortzea
Zuhaitza apaintzeko apaingarriak ekartzea
OIentzerori eta Mari Domingiri emateko gutuna ekartzea
Antolatzaileak: Guraso Elkarte, Zaparrada Elkarte, Mallabiko Gazte Asanblada, Musikabia eta Mallabiko Udala.

Abenduak 28, eguaena

19:00 Skimetrajea: 2023 edizioko film labur sarituen hautaketa. Kontzejuzarreen.

Abenduak 29, barikua

10:30 Baserririk baserri gabon eskean. Ibilbidea: Gere, Arandoño eta Berano.

15:00 Tenis partiduak, eskolako frontoian.

Urtarrilak 2-3

11:30-13:30 eta 16:30-19:30 Gabonetako Haur Parkea, herriko frontoian.

Urtarrilak 7, domeka

16:00 Domino txapelketa. Kontzejuzarreen. 12 urtetik beherakoentzat.

2023-2024 Gabonetako Programa

durango.eus



DURANGO

Haur tailerrak
eta jolasak

Musika
kontzertuak

Durangoko
kaleetan
animazioa

Artisan
azoka



Gabonak 2022

MAÑARIA

Abenduak 19, martitza

18:00 Ipuin kontalaria: 'Gutxiago gehiago da'. Adin guztientzako. Errose Bustintza kultur etxea.

Abenduak 24, domeka

Arratsaldean: Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

Abenduaren 26tik 29ra

Negulekuak, Andra Mari elkarteak antolatuta.

Urtarrilak 5, barikua

Erregeen etorrera.

OTXANDIO

Abenduak 16, zapatua

Olentzero eta Maridomingiri eskutitza helarazteko jolasa martxan egongo da asteburuan zehar.

Abenduak 17, domeka

10:00 Tokiko ekoizle eta artisauen azoka.

12:00 Urrezko Aizkoraren finalerdiak.

13:30 Kale animazioa Otxandioko Dultzaineroen eskutik.

Abenduak 22, barikua

20:00 Otxandioko Bandaren Gabonetako kontzertua Elizan.

20:00 Gaztetxoekun zunba erakustaldia Haurreskolako gimnasioan.

Abenduak 24, domeka

19:00 Olentzeroren etorrera.

Abenduak 26, martitza

18:30 'Etzandreak', antzerki ikuskizuna Mainondoko gimnasioan.

Abenduak 29, barikua

18:30 'Aire', Maurizia Aldeiturriagaren bizitzaren dokumentala. Aurkezlea eta filmeko partaidea, Garazi Pacheco.

Abenduak 31, domeka

9:00 Urteko azken mendi irteera, Arangixo. Autobus geltokian.

20:00 Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea Kontseilupean.

Urtarrilak 3, eguaztena

17:00 Zirkoteke, haurrentzako antzerkia Mainondoko gimnasioan.

ZALDIBAR

Abenduak 21, eguena

21:30 III. Emakumeen Olazar Pilota txapelketako finalerdia. Jarraian, XXXVI. Olazar pilota txapelketako finalerdia.

Abenduak 22, barikua

17:00 Haur antzerkia: 'Olentzerori zer gertatzen zaio?' Olazar pilotalekuan.

17:00 Haur antzerkia: 'Olentzerori zer gertatzen zaio?' Olazar pilotalekuan.

Abenduak 24, domeka: **Badatoz Mari Domingi eta Olentzero herri ekimena.**

12:00 harrera. Olazar kalean.

12:30 Ongi etorri jaialdixoa. San Martin plazan.

Abenduak 26, martitza. San Esteban eguna

18:00 Taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak. Eskolako pilotalekuan.

Abenduak 27 eta 28, eguaztena eta eguena

12:00-14:00/17:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea. Eskolako kiroldegian.

Abenduak 29, barikua

19:00 'Hondamendia' antzerkia. Olazar pilotalekuan.

Abenduak 31, domeka

16:00 III. Emakumeen Olazar Pilota Txapelketa. Finala. Jarraian, XXXVI. Olazar txapelketako finalak.

17:00 IX. San Silvestre lasterketa. Irteera udaletxeko plazatik.

Urtarrilak 1, astelehena

10:30 Santamarinazarrera igoera. Ondoren, talde argazkia.

Urtarrilak 5, barikua

18:00 Erregeen desfilea. Agarre parketik.

ZORNOTZA

Abenduak 15 - Urtarrilaren 4ra bitartean

'Ganbaran ezkutaturiko aurpegiak' erakusketa Zelaietan. Ignacio Arkauteren lanak.

Abenduak 15, barikua

17:30 Zakubete ipuin. Dorleta Kortazar ipuin kontalaria liburutegian.

18:30 Umeentzako bertso antzerki dinamiko Zelaietako kontzertu gelan. Antolatzailea: Eta abar bertso eskola.

Abenduak 16, zapatua

17:30 Anbotoko Mari antzerkia Zornotza Aretoan, Logela Multimediaren eskutik. (Sarrera: 5 euro).

Abenduak 17, domeka

8:00 Klasikoen AIDAE Rally Benefikoa Zubiondo plazan. Antolatzailea: Lanzero Classic kirol kluba.

12:30 Gabon kantak Larreako elizan Antolatzailea: Larreako katekesia.

Abenduak 22, barikua

20:00 Gabonetako kontzertua Zubiaur Musika Eskolako kideen eskutik. (Sarrera: 3 euro).

17:00 - 21:00 Ihes gela ibiltaria Zelaieta parkean (izen ematea euskarazbarrabarra.eus atarian).

Abenduak 23, zapatua

10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00 Ihes gela ibiltaria Zelaieta parkean (izen ematea euskarazbarrabarra.eus atarian)

12:00 Mesias Sarritan herriko koraleen eskutik, herritik zehar.

13:30 Topaketa Kalbarioan Antolatzailea: Herriko abesbatzak.

20:00 Atzoko eta gaurko klasikoak Zornotzako Musika Bandaren eskutik. (Sarrera: 3 euro).

20:00 Gabonetako gauero berezia.

Abenduak 24, domeka

9:00 Belatxikietara igoera Zelaieta parketik hasita (Antolatzailea: Extrem Zornotza).

18:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera herriko plazan, **Udazken txistulari taldeak, Triki Piu Pandek eta Galtzagorriek lagunduta** Antolatzailea: Udabarri dantza taldea.

Abenduaren 26tik 30era

11:00 - 14:00 eta 16:30 - 21:00 Gabonetako Haur Parkea Zelaietako frontoian.

Abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 4ra

11:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00 Txu Txu Trena Gudari kaleko autobus geltokian.

Abenduaren 26tik 30era eta urtarrilaren 2tik 5era

17:00 - 21:30 Guero Gabonetan, Zelaietako kontzertu gelan.

Abenduak 26, martitza

17:30 'La Navidad en sus manos' antzezlana Zornotza Aretoan (Sarrera: 4,5 / 5,5 euro)

Abenduak 28, eguena

17:30 'Muna' antzezlana Ganso & Ciaren eskutik Zornotza Aretoan (Sarrera: 5 euro).

Abenduak 29, barikua

17:30 'Ping Pang' antzezlana Zornotza Aretoan, Xabi Larraeren eskutik (Sarrera: 5 euro).

Abenduak 31, domeka

09:00 Belatxikietara igoera Zelaieta parketik hasita Antolatzailea: Zornotza Mendi Taldea

16:30 San Silbestre lasterketa Zelaieta parkean Zornotzako Triatloi Kluba.

Urtarrilaren 2tik 5era

11:30 - 13:30 Tranpantoko Fake Food gaztetxokoan.

17:00 - 20:00 Eskulan tailerrak Zelaietako ludotekan.

Urtarrilak 3, eguaztena

17:30 'Bo Jauna' antzezlana Zornotza Aretoan, Marie de Jongh konpainiaren eskutik (Sarrera: 5 euro).

Urtarrilak 4, eguena

9:00 12 orduko maratonia Zelaietako frontoian. Antolatzailea: Lagun Onak.

17:30 'Kutxartean' antzezlana Paraiso konpainiaren eskutik, Zornotza Aretoan. (Sarrera: 5 euro)

Urtarrilak 5, barikua

18:00 Erregeen kabalkada Zubiaur musika eskolako hip hop ikasleekin eta Triki Piu Pand taldeagaz. Gudari - Herriko plaza.


22:00 Pilota Pro Fest jaialdia Zelaietako frontoian.



Olentzero eta Mari Domingi maiteak:

A large rectangular area with a light beige background and a thin gold border. It contains 20 horizontal dotted lines for writing, starting from the top of the text and extending down to the bottom of the page.





Gabonetan opariak erosteko aukera zabala Durangaldean

Gabonetako erosketak egiterakoan eskualdeko dende duten aniztasuna eta kalitatea aintzat hartzekoak dira. Gustu eta poltsiko guztietarako produktu zein zerbitzuak eskura ditugu Durangaldean. Horri arreta ezin hobea eta aholkularitza profesionala gehitzen badizkiogu, zalantza barik bertatik bertara erostea da aukerarik onena. Zero kilometroa oinarri hartuta kontsumitzeko egunak dira. Urte Berri on!



SANCHO TENA
PERFUMERIA

Artekale, 8. Durango
649 497 950






MANCISIDOR

Andra Mari 9, 48200 · Durango info@joyeriamancisidor.com 946 810 628



gau-tu
Sistemas de Descanso y Textil
Atsedeen Sistemak eta Ohialak

Olleria Kalea, 3 · Tel.: 946 55 07 00

ZURE ATSEDENA HOBETZEN LAGUNTZEN DUGU.
JAI ZORIONTSUAK!






bed's

KOLTXOIAK - OHE OINARRIAK
BURKOAK - OHEKO ARROPA

Zure premiei erantzuteko prest egongo gara:
bed's koltxoi-denda
Alluitz, 1 - Durango
944 005 980

arteka
liburu-denda

artekale, 20
944 657 292
Durango

haur literatura
artEa
musika
arkitektura
opari bereziak
erakusketak



hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Eskanerak WhatsApp-er eslatu
686 214 964

bizum ez ordaindu

**Gabon hauetan
ez izan kezka.
Zuretzako kozinatzen du**

sardexka^k
etxerako janaria

Era guztietako krocketak,
okelak tenperatura baxuan,
arrainak, tartak, ...



Ayarza
1949



Montevideo, 10 Durango · Tel: 94 403 54 19
Luis Urrengoetxea, 11 Zornotza · Tel: 946 73 02 42

Instagram: [pasteleria_ayarza_1949](#)

 **JANTZIE**



Euskal Herria Plaza, 2 Zornotza · 946 73 43 33



TURROI ESCLUSIBOAK

GOZOTEGIA
gozatu
DURANGO

Ermodo, 11 Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia gozatugozotegia





JAEDeko kideak Orobiogoitia Institututuko ikasleekin.

JAEDeko boluntarioek eta Durango eta Iurretako ikasleek bat egin dute premia larria duten familiei laguntzeko proiektuan

Durangoko Frai Juan Zumarraga eta Iurretako Juan Orobiogoitia institutuak hainbat ikaslek JAEDen jardueretan parte hartu dute ikasturte honetan

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Azken asteetako astelehenetan ohikoa baino mugimendu handiagoa egon da JAED elkarteak Durangoko Kalebarrian duen lokalean. Izan ere, asteotan bertara joan dira Durangoko Frai Juan Zumarraga eta Iurretako Juan Orobiogoitia institutuak hainbat ikasle. Han egoten dira JAED elkarteko boluntarioekin batera, eta elkarrengatik osatzen dituzte sortak, beharrezan larrian dauden pertsona eta familiek hartu ditzaten gero. Ikasleak taldeka banatzen dira, beharrezanaren arabera. "Batzuek fruta eta patatak pisatzen dituzte, eta beste batzuk arrautzak banatzeaz arduratzen dira, adibidez", azaldu du Estibaliz Zurikarai elkarteko boluntario eta presidentea. Elkartean pozik hartu dute ikasleen parte hartzea. "Beste lan erritmo bat da, baina oso ondo gaude. Irakasleak ohituago egongo dira horrelako lanetan, baina gu...", aitortu du barre artean Zurikarai. Leire Iruretagoiena irakasleak azaldu du pozik daudela ekimenagaz. Juan Orobiogoitiako irakaslea da bera, eta lehenengoz parte hartu du honelako egitasmo

batean. "Hasieran, ikasleek ez zuten argi ikusten zertara gendozen, eta, azaldu arren ere, ez zuten guztiz ulertzen benetan zer egiten zebiltzan. Baina orain bai. Gainera, oso *feedback* ona jasotzen gabilta", gaineratu du. "Jendeari laguntzen dabilzala ikusten dute, euren jarraera eta lana oso baliagarriak direla. Eta hori oso positiboa da eurentzat, ikasgelatik kanpora ere lan egiten dutelako, eta bestelako konpentzia batzuk eurenganatu ditzakete horrela", gehitu du. Ordu bian egoten dira Kalebarriko egoitzan, beharrezan, eta baita elkarrengatik kontu kontari ere, paketeak prestatzen dituzten bitartean. Giro onean egoten dira gainera, normalean batzen diren hamar boluntarioei irakasleak eta hamabost ikasleak gehitu behar zaizkie eta. "Ikasleatariko batzuk lehian ere ibiltzen dira ea nork osatu sorta gehiago", esan dute.

JAED elkarteak 1963an sortu zen, eta beraz, 60 urte daramatza premia larria duten bizilagunak laguntzen. Iurretako eta Durangoko Udaltzako zerbitzu sozialekin ez ezik, gizarte arloko beste hainbat elkarrengatik harreman sendoa dute, eta

guztiz errotuta dago inguruetan. Horren erakusle da ikastetxeagaz martxan jarri duten ekimen hau. Durangoko Frai Juan Zumarraga institutuagaz jarri zuten martxan lehenengoz, iaz, egitasmoa. "Ikastetxetik deitu ziguten esanez, ikasle batzuek hamaiketarako ezer ez zutela detektatu zutela. Horrela,

JAEDek 200 bat poltsa banatzen ditu hilean; 60 urte daramatza premia dutenentzat lanean

Astean bi orduz, hamabost bat ikasleak laguntzen dute JAEDeko boluntarioei

JAEDen bidez premia hori zuten ikasleei fruta banatzen hasi ziren ikastetxetik; ostean, Iurretatik deitu gintuzten, beraiek ere antzerako kasuak zizutzelako. Bigarren kasu honetan, jasotakoa bueltan emateko

zer egin zezaketen galdetu ziguten". Horrela, ikasleak laguntzera joatea adostu zuten, trukean, astean behin, urritik eta lehenengo hiruhilekoa amaitu bitartean. "Nik pertsonalki, ez dut horrelako ekimen batean parte hartu ikasleekin, eta oso positiboki ikusten dut", azaldu du Iruretagoienak.

Urte guztiko lana

Boluntarioak astean hiru bider elkartzen dira bertako lanak egiteko, astelehen, martitzen eta eguenean. Astelehenetan sortak prestatzen dituzte, eta martitzen eta eguenean banaketa egiten dute. "Astero 45 bat poltsa prestatzen ditugu. Horrek esan gura du hilean 200 inguru banatzen ditugula; aste batzuetan beste batzuetan egoten ez diren produktuak egoten dira, elikagaien bankutik ematen digutenaren arabera", adierazi dute. Aste honetan, adibidez, atun eta melokotoi latekin osatu dituzte sortak. Olioia, esnea, lekaleak, galletak eta pasta dira normalean banatzen dituzten produktuak. Gabonetan jostailuak ere banatzen dizkiete halakorik

lortu ezin dutenei. "Umeak dauden kasuetan, beste produktu batzuk ere sartzen ditugu, haurrentzat bereziki jasotzen ditugunak; adibidez, pixoihalak eta umeentzako esnea", argitu dute.

Ikastetxeekin duten proiektu komunitarioaren beste alde onenari bat da elkartearen jarduna ezagutzera ematen duela. "Gazteek Andra Mariko stand solidarioa ezagutzeko dute behar bada, baina JAEDek egiten dituen beste lanak ez dut uste. Honela, eurengana heltzea lortzen dugun", esan du Zurikarai. Alde horretatik, errazago izango zaie boluntario berriak lortzea urtean zehar egiten dituzten jardueretarako.

2022ko maiatzean, JAEDek zuzendaritza batzordea berriro zuen eta ordutik da presidentea Zurikarai. Aurretik, Maria Eugenia Uncillarena zen ardura hori; hamarkada bi baino gehiago egin zituen behar horretan. Aldaketagaz, elkarteak gaur egungo beharrezanetara egokitzea bilatzen zuen JAEDek. "Gustura gabilta lanean, ondo konpontzen gara eta asetu egiten gaitu, gainera", gehitu du Zurikarai.

60. urteurrenagaz batera, JAEDek inoizko errifarik gehien saldu gura du stand solidarioan: 70.000, iaz baino 5.000 gehiago

JAEDek Durangoko Andra Mariko elizpean ipini du aurten ere stand solidarioa; urtero legez, 1,50 eurotan eskuratu daiteke txartel bakoitza



JAEDeko kideak, stand solidarioaren aurkezpenean.

da balio duena. Zozketa, ohikoa den moduan, urtarrilaren 6an izango da, 18:00etan, Andra Mariko elizpean, eta Kriskitin Dantza Taldearen laguntza izango dute zenbakiak ateratzeko. JAEDeko Gabonetako loteria standean bertan egongo da eskuragarri, edo ohiko establezimendu laguntzaillean. Beste nobedadeetariko bat Errotari elkartearen Durangoko mikologia katalogoa izango da; elkarteak dohaintzan eman die liburua, eta hamar euroko prezioan eskuratu daiteke.

Aitortza

Urteurrenagaitik ez ezik, jardunagaitik ere hainbat ekitalditan parte hartu du JAEDek aurten. Besteak beste, Durango Saria eman zioten azaroan, gizarte arloan egiten duen lanagaitik. Durangoko San Fausto jaietan ere urteurren horri egin zioten erreferentzia banatu zituzten 9.000 zapietan (iaz baino 3.000 gehiago). Aurtengo urrian ere Iurretako Udalak eta JAEDek hitzarmena sinatu zuten. Udalak 9.225 euro ipini ditu premia larrian dauden pertsonen laguntzeko.

DURANGO • A. M.

Urtero legez, JAED elkarteak stand solidarioa inauguratu zuen azaroan; Andra Mariko elizpean ipini dute, aurten ere, ezaguna den elkartasun gunea. Aurten

nobedade batzuekin dator ekimena; besteak beste, inoizko errifa kopururik handiena ipiniko dute salgai, 70.000, iaz baino 5.000 gehiago. Beste urte batez, Gabonetako loteriako zenbakia

51.384 izango da. Urtero legez, 1,50 eurotan eskuratu daiteke txartel bakoitza. Horrez gainera, zozketako lehenengo saria, autoa, esleitu barik geratu ez dadin (aurreko aldi batzuetan lez), aurten

bigarren zenbaki bat aterako dute, ordezko bat; lehenengo zenbakiak 2024ko martxoaren 31ra arte izango du saria jasotzeko aukera; epe hori igarotzen deanean, bigarren zenbakia izango



euskotzarak
MODA & GOURMET

ERMODO KALEA, 3 · 48200 DURANGO - BIZKAIA
Tel. 946 817 205 · info@euskotzarak.com
www.euskotzarak.com

Euskotzarak, gabonetako otzarak zure konfiantzako lekuan.



AUKERATU JOSTAILU = arduratsuago bat



Plastiko birziklatuz egindako peluxeak.



FSC iturri jasagarrietan oinarrituta egindako jostailu-ontziak.



Ontzietan plastikoa murriztea.



Modu jasagarrian kudeatutako basoetatik ateratako kartoizko ontziak.



Material birziklatuekin egindako sukaldari maitagarria naiz. Jolaskide ezin hobea txikiarentzat!

Kaixo, Julio Kastrorea naiz!



Aurrezki prezioan dago

**6€
99**

JULIO KASTORE SUKALDARIA

Alcampo

DURANGO

Montorreta Industrialdea, 1 ST3 errepidea.

Zapo eta otarrainxka albondigak saltsa berdean



Osagaiak:

Zapoa
Otarrainxkak
Bi arrautza
Baratxuria
Tipulin erdia
2 koilarakada ogi birrindu
Azenarioa
Porrua
Txakolina
Oliba-olioa
Gatza
Piperbeltza
Perrexila

1. Zapoa garbitu eta solomoak atera, burua eta hezurra gorde arrain-salda egiteko.
2. Txikitu arraina ahalik eta finen, eta jarri plater sakon batean.
3. Zuritu eta garbitu otarrainxkak, txikitu eta gehitu ontzira zapoagaz batera.
4. Jarraian gehitu arrautza bat, baratxuri-ale xehatu bat, tipulina txikituta, bi koilarakada ogi birrindu, gatz pixka bat eta piperbeltza. Nahastu ondo eta utzi hozkailuan.
5. Hozkailuan ordubete igaro ondoren, egin bolak eta pasatu irinetik lehenengo eta arrautza irabiatutik ondoren. Albondiga guztiak prest ditugunean, frijitu oliba-oliotan.
6. Beste alde batetik arrain-salda egingo dugu:
Kazola batean sartu zapoaren burua, azenario bat eta porru bat. Uraz estali eta sutan jarri. Irakiten hasten denean, gaineko bitsa kendu eta sua erdira bajatu. Ordu erdi sutan eman ondoren, iragazi eta salda gorde.
7. Salda eta zapo albondigak eginda izan ostean, saltsa berdea egingo dugu:
Berotu oliba-olioa kazola batean, gehitu 2 baratxuri ale xehatu, eta gorritzen hasi baino lehen gehitu 2 koilarakada irin, eta frijitu segundo batzuetan.
8. Gehitu edalontzi bat txakolin eta utzi alkohola lurruntzen. Ondoren, gehitu arrain-salda eta perrexil xehatua. Irakiten hasten denean, sartu albondigak saltsan eta egosi 10 bat minutuz su baxuan. Egosita dagoenean, gehitu perrexil xehatu berri pixka bat.
9. Azkenik, ipini plantxan gorde ditugun otarrainxka batzuk, eta zerbitzatu albondigekin batera.

ZEKO PROPOSAMENAK



Ekaitz Basaguren Coro

Basa-ko sukaldaria

Untzillatx Kalea, 9, 48200 Durango

 @basa.durango · Tel: 747 421 104



Otarraixkadun brioche-opila



Osagaiak:

Brioche motatako opila
Otarraixkak
Arrautza 1
Lima 1
Kimu xamurrak
Ekilore-olioa
Sriracha-saltsa

1. Moztu brioche ogia laukizuzen txikitan, bi mokadutan jateko besteko tamainan; berotu gurina eta pintzel bategaz gurinagaz busti eta plantxan ipini, ogiak kolorea har dezan.
2. Zuritu eta garbitu otarraixkak. Salteatu edo plantxan ipini pixka bat otarraixkak, gatz pixka bategaz, larregi egin barik, puntuan utzi.
3. Hozten direnean, txikitu otarraixkak xerra mehetan, eta jarri bol edo plater sakon batean.
4. Sriracha mahonesarako: Jarri nahaste-ontzi batean arrautza-gorringo bat, lima-zuku tanta batzuk, koilarakada bat sriracha-saltsa, hasi irabiatzen eta ekilore-olioa botatzen joan irabiatzen duzun bitartean, nahi den testura lortu arte.
5. Nahastu sriracha mahonesa otarraixka zatituekin entsaladilla baten modura geratzeko.
6. Ondoren, ireki briochea, bete otarraixka-entsaladillagaz, eta, apaintzeko, lima azal pixkat xehetu gaintetik eta kimu xamur batzuk gehitu. Nahi izanez gero, txile-hauts pixkat bota gaintetik.

afede



Gure Jostailu-denda



www.afede.com

Parte hartu jostailu hauen zozketan **anboto.org** webgunean!

BURUARI KLIK!



MATEMATIKA

Egin eragiketa hauek beheko tresnek duten zenbakia kontuan hartuz.



= 4



= 8



= 3



= 1



+



-



=



-



x



=



/




x



=

OSATU MARRAZKIA

Margotu laukiak lore honen beste erdia osatzeko.
Ispilu baten moduan, bere erreflexua margotu behar duzu.



IRUDI ENGAINAGARRIAK

Zazpi zati hauetatik sei ez datoz bat beheko irudiagaz. Zeintzuk?



LABIRINTOA

Labirinto honetan egin bidea zentzu gehien duen sekuentziari jarraituta.





Musika eta literatura uztartzen dituen *Katuen kontuak* emanaldia ikusteko azken aukera egongo da datorren abenduaren 23an, Plateruena Kultur Aterpean. Joseba Sarrionandia idazle eta poeta iurretarrak eta Ines Osinaga musikari arrasa-

tearrak, biek elkarregaz, landu duten kantu saio musikatuaren emanaldia 22:00etan hasiko da.

Ekitaldian entzungo diren kantak Sarrionandiak orain hamar urte Habanan (Kuba) sorturikoak dira. Han sorturiko

'Katuen kontuak'

MUSIKA DURANGO :: Abenduak 23

Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga, Durangoko Plateruenan

testuek Atlantikoa zeharkatu zuten eta Euskal Herrira heldu ziren. Gose taldeko Ines Osinagak musika ipini zien hitzei. Horrela gauzatu zen *Gosariak* proiektua. Artista biek letra horien jatorria eta zergaitia azalduko dute *Katuen kontuak* ema-

naldian. Lagunez inguratuta arituko, gainera. Felipe Murillo musikariak, Yaima Orozco trobadoreak, Garazi Egiguren eta Eneko Galdos dantzariak, Dana Moya musikariak eta Peru Magdalena idazleak parte hartuko dute Plateruenako saioan.

Abenduaren 15ean

BERRIZ **bakarrizketa**
'Tu-tum, platz' (Jon Plazaola), 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO **antzerkia**
'Cómico' (Rafael Alvarez El Brujo), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA **azoka**
Iurretako Elkartasun Azoka, 09:00etatik 12:30era eta 16:30etik 19:30era, Ibarretxe kultur etxean.

Abenduaren 16an

BERRIZ **dantza**
'Hamaika' (Cielo Raso konpainia), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO **ikastaroa**
Suk Aldatu: 'Euskal-uruguaitar sukaldaritzaren show-cooking-a', 11:00etan, Merkatu plazan.

DURANGO **dantzaldia**
Dantzajaia AIKO taldeagaz, 17:00etan, Plateruena Kultur Aterpean.

ZORNOTZA **antzerkia**
'Anbotoko Mari' (Logela Multimedia), 17:30ean, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 17an

ABADIÑO **azoka**
Gabonetako azoka, 11:00etan, Traña-Matienako eskoletan.

Yanire Granero **diseinatzaile abadiñarra omenduko dute.**

DURANGO **antzerkia**
'Cómico' (Rafael Alvarez 'El Brujo'), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO **elkartasuna**
'Ibiltari' martxa solidarioa, 11:00etan, Ezkurdin. Alboan GKEk eta San Jose Jesuitak ikastetxeak antolatuko dute migratzerako behartuta dauden emakumeen aldeko martxa,

DURANGO **musika**
Gabon kontzertua (Jaizale Txistulari elkarteak), 13:00etan, San Frantzisko elizan.

GARAI **azoka**
Baserriko produktuen azoka, 11:00etan, plazan (euria bada frontoian).

ZORNOTZA **aurkezpena**
'Oinatzak koloretan' (Bego Artabe eta Juanlu Artabe), 12:00etan, Besue elkarteak.

Abenduaren 19an

MAÑARIA **ipuin kontalaria**
'Gutxiago gehiago da', 18:00etan, Kultur Etxean.

Abenduaren 20an

DURANGO **hitzaldia**
'Ibarrola y el equipo 57' berbaldia (Hizlaria: Mikel Iriondo, EHUKo Estetika irakaslea eta artean aditua), 19:00etan, Arte eta Historia Musean.

ZORNOTZA **ikastaroa**
Biodantza ikastaroa, 18:00etan, Besue elkarteak. Izena eman behar da.

Abenduaren 21ean

BERRIZ **berbaldia**
'Gabonak dira eta aulkia hutsik dago' (Hizlariak: Iratxe Lejarreta eta Valen Esteban), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean. Antolatzaileak: Kamen Amezua, Aitor Monje eta Anakotz Lasarte.

DURANGO **bisita gidatua**
'Pepera ardatz' (Agustin Ibarrola), erakusketaren bisita gidatua (gaztelaniaz), 19:00etan, Arte eta Historia Musean.

Abenduaren 22an

BERRIZ **antzerkia**
'Loti ederrak' (Glu Glu), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO **musika**
'Pasión de Falla' (José Luis Nieto), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA **ipuinak**
'Ipuin ibiltariak', Ridouane Chakoich (Maroko) eta Rakel Imaz (Euskal Herria), bibliotekan: 3-5 urteko umeentzat (heldu batek lagunduta), 17:00etan. Sei urtetik gorako umeentzat, 17:45ean.

IURRETA **ipuinak**
'Historias de arena y de sal', helduentzako ipuin kontaketa saioa Ridouane Chakoich-en eskutik (Maroko, Agharas, Imazigh elkarteak), 19:00etan, bibliotekan.

ZORNOTZA **musika**
Gabonetako kontzertua (Zubiaur Musika Eskola), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 29a bitartean

ELORRIO **erakusketa**
Zigiluen bilduma erakusketa, Iturri kultur etxean. Elorriko Elkarte Filatelikoak XIX. aldiz antolatuko duen erakusketan Berriotxo Abesbatza omenduko dute, Correosek baimenduriko zigilu eskusibo batez.

Urtarrilaren 28a bitartean

DURANGO **erakusketa**
'Pepera ardatz' (Agustin Ibarrolaren artelanak), Arte eta Historia musean.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA
• **Napoleon**
domeka 17: 19:00

• **Boo kwai eta museoaren lapurreta**
barikua 15: 17:00
domeka 17: 17:00

• **Mali Twist**
eguztina 20: 18:30

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Camino a Belén**
barikua 15: 18:30 / 21:00
zapateria 16: 17:00 / 19:30 / 21:30
domeka 17: 17:30 / 19:30
astelehena 18: 18:00 / 20:15
martitza 19: 18:00 / 20:15
eguztina 20: 19:00

• **Champions**
barikua 15: 18:30 / 21:00
zapateria 16: 18:00 / 20:30
domeka 17: 17:00 / 19:30
astelehena 18: 17:45 / 20:15
martitza 19: 17:45 / 20:15
eguztina 20: 19:00

• **Ocho apellidos marroquis**
barikua 15: 20:30
zapateria 16: 19:30 / 21:30
domeka 17: 19:30
astelehena 18: 20:15
martitza 19: 20:15

• **La navidad en tus manos**
barikua 15: 18:00
zapateria 16: 17:00
domeka 17: 17:00
astelehena 18: 18:00
martitza 19: 18:00

• **Nabucco (opera)**
eguztina 20: 19:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Scraper**
zapateria 16: 20:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:00

• **Boo Kwai eta museoaren lapurreta**
domeka 17: 17:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Ocho apellidos marroquis**
barikua 15: 20:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:15

• **Panda vs Aliens**
domeka 17: 17:00

• **Los ocho montes**
martitza 19: 20:15

“4.000 entzuleren aurrean zure bertsoakera eta dohainak ateratzea baino gauza ederragorik ez dago”

Gorka Pagonabarraga durangarra Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finaleko zortzikotean arituko da kantuan, bihar; bigarren finala du jarraian



Gorka Pagonabarraga
Agorria

Bertsolaria

DURANGO | 2000

BERTSOLARITZA • IGOR GALARZA
Martitzenean Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalistek prentsaurrekoa egin zuten Bilbo Arenan, Miribillan. Orain dela urte biko lehenengo finalaren aldean, ideiaz "helduago" ailegatu zaio Gorka Pagonabarragari (Durango, 2000) bigarrena, eta hala adierazi zuen prentsaurrekoan. Bihar jokatuko da finala, 17:00etan, eta 4.500 ikus-entzuletik gora izango dira bertan. Ikus-entzule horiek jesarrita egongo diren aukietariko batean topatu zuen ANBOTOK Pagonabarraga prentsaurrekoaren ondoren.

Zer esan gura du zuretzat bigarren finalera ailegatzek?

Lasaitasun bat neure buruagaz, edo behintzat aitzakia legez balio dit sinisteko banaizela hemen egotea merezi duen bertsolari bat. Etenik barik ipintzen dugu geure burua zalantzan, eta hemendik aurrera ere ipiniko dut, baina tira, aste hauetan behintzat badaukat sinisteko aitzakia.

Oso ibilbide desberdinak egin dituzu final bietara ailegatzeko. Aurreko txapelketan udaberriko fasetik hasi zinen; oraingoan, ostera, finalaurrekoetatik. Zelan eroan duzu txapelketaren prestaketa prozesua?

Kontziente nintzen oso desberdina izango zela. Ahalegindu naiz

Esango nuke helduago eta kontzienteago naizela txapelketak eta Bilbo Arenak inplikatzan duenaz

aurreikusten zer izan ahal den finalerdietan sartzea, horrek dakarren kolpea prestatzeko eta egon zitezkeen eszenatoki guztiak prestatzeko. Horretarako lan egin nuen, prest egoteko gerta zitezkeen edozertarako, eta gerta zitezkeen onena gertatu zen.

Prentsaurrekoan aipatu duzu azken urte biak arraroak izan direla zuretzat.

Gorabeheratsua egin zait denbora hori guztia. Aurreko txapelketa oso ondo joan zen, larregizko poza ere hartu nuela esango nuke. Eta gero, tira, konturatzen zara finalera ailegatu arren bertso txar mordoa gertzen zaizula botatzeko oraindino. Plazara irteten duzu, sariketetara joaten zara eta oraindino kolpeak hartzea tokatzen zaizu. Esaterako, iaz, hiru asteren buruan Zarauzko Lizardi sariketan abestu nuen, Euskal Herriko eliteko bertsolariekin abestu nuen, eta, gainera, Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu nuen. Bolada ona izan behar zuen, baina ez nuen bertso on bat kantatu. Hori kudeatu egin behar da, eta ikasteko balio izan dit. Ezin da eskolarteko txapelketetan legez hobetzen eta hobetzen joan urtero. Gorantz joateko, batzuetan kolpeak jaso behar dira.

Orain dela urte biko Gorkagaz aldearuta, zertan da hobe oraingoan?

Esango nuke helduago eta kontzienteago naizela txapelketak eta Bilbo Arenak inplikatzan duenaz. Orokorrean, edozein gairen inguruan iritzi argiago bat daukat, eta esan gura ditudan gauza batzuk ditut. Gero, oso gaxa da iritzi hori bertsora ekartzea txapelketako lanen eta bat-batekoaren bitartez. Baina erronka horretan dibertitzen naiz eta gustura nabil.

Mallabiko sariketa irabazi berri duzu. Finalak puntu onean harrapatzen zaitu?

Bai. Baina kontua da bertsotan hasten zaren momentura arte ez dakizula zer gertatuko den. Eta ezjakintasun hori kriminala da. Nire lagun kirolariak gogoratzen ditut eta eurek badakite gutxi gorabehera zer denboratan ibiliko diren arinetan edo igerian, apur bat hobeto edo okerrago egin arren. Guk ez dakigu zer egingo dugun bihar. Baina aurrekoa baino final hobe egiteko moduan ikusten dut neure burua.

Berrizko saioan helduago ikusi zintugun egoteko moduan.

Bai, beharbada bai. Eboluzio hori egin dut. Aurreko txapelketako finalerdietan astroak lerratu zitzaizkidalda esango nuke, eta aurten gaitasun batzuk eskuratzearen ondorioz nago finalean.

Orain urte biko zorte hori eta aurtengo gaitasunak elkartuz gero, zeozertarako aukera ikusten duzu bihar?

Jakina, aukerak beti daude hor, baina ez nabil bakarrik postuei begira hori diodanean. 4.000 entzuleren aurrean zure bertsoakera eta dohainak ateratzea baino gauza ederragorik ez dago. Eta uste dut neure onena eman gero 2021eko postutik (zortzigarren egin zuen) gora egiteko moduan nagoela.

Ez da ganbarako lanik egongo, baina egongo balitz ere, zortziok gai desberdinak aterako genituzke

Sorpresetariko bat Aitor Bizkarra abadiñarra kanpoan geratu izana da, aurreko final bietan egon eta gero. Txaber Altube abadiñarra ere finaletik hurbil geratu da. Pena hartuko zenuen.

Pena handia hartu nuen biengaitik. Txaber zorte txarra edukitzen dabil azken urteetan. Euskal Herriko Txapelketan ordezko legez ibili zen batetik bestera, eta aurten finalean egongo da ordezko. Aitorren kasuan, harritu egin ninduen bere puntuazioak, baina ez dut inor epaitu gura. Gazte belaunaldiko ahots interregarri-neriko eta garrantzitsuenetariko bat da, eta bere hutsunea igarriko da. Tira, txapelketak ez du pozik denentzat, eta gauden zortziok ere baditugu geure gauzak esateko.

Zelan ikusten duzu zortzikotea?

Oso ederra da. Bakoitzak kolore desberdina ematen diogu finalari. Ez da zortzikote plano bat. Ez da ganbarako lanik egongo, baina egongo balitz ere, zortziok gai desberdinak aterako genituzkeela esango nuke.

Asteon entrenatuko duzu? (Elkarrizketa martitzenean izan zen)

Pare bat bider egingo dut bertsotan. Egin beharreko lanak eginda daude eta finala baino ez da gertatzen.

Gorka Pagonabarraga Bilbo Arenan; bertan izango da biharko finala.



Durangoko Azoka jendetsua izan da.

Gerediagaren esanetan, Durangoko Azoka "arrakastatsua eta jendetsua" izan da

Durangoko Azoka "gaztea" ere izan dela nabarmendu dute: "Kulturazale gazteen erantzuna ona izan da, postua ipini duten partaideen balantzea ere positiboa delako"

DURANGOKO AZOKA • A. M.

Durangoko Azokaren 58. edizioak eman du berea eta Gerediaga elkarteko antolatzaileak pozik daude izan duen harreragaz. Arrakastatsua izan dela diote. "Jendetsua, bizia, irudimenez jantzia, anitza eta parte hartzailea izan da. Pozik gaude emaitza orokorragaz. Baita asebetarik ere, postua ipini duten partaideen balantzea positiboa izan delako. Salmentak onak izan dira", azaldu dute ohar baten bitartez. Gazteen parte hartzea nabarmendu dute: "Aurreikusirik moduan, azoka gaztea izan da. Izan ere, kultur-

zale gazteek erantzun ona eman diote deialdiari eta Durangoko Azokara batu dira. Aurkezpenak jarraitzen eta erakusmahaietan kuxkuxeatzen ikusi ditugu egunero, zer esanik ez abenduaren 8ko jardunaldian, eurei eskainirik Gazte Eztanda egunean. Azokako partaideek ere nabarmendu dute gazteek erakutsiriko interesa".

Guneetan eginiko aurkezpenek izan duten harrera ere azpimarratu dute. Karmele Jaio eta Jon Maia sortzaile esperientziadunen aurkezpenek baturiko jendetzaz gainera, Julen Apella

berriztarrarenak baturikoa azpimarratu dute. Musikari dagokionez, Toc, Nakar, Txopet, Leihotikan eta Ibil Bedi taldeen emanaldi jendetsuak nabarmendu dituzte. Eta Saguganbaran, Iñigito Txapelpunk eta iratxoek ikuskizuna, Pello Añorgaren eta Jokin Mitxelenaren *Pantxo zezena* eta Potx eta Lotx pailazoen ikuskizuna. Bestalde, 2023ko Sormen Beka Ihintza Iriarteren, Miren Bereziartuaren eta Uxue Bereziartuaren Marramiau sorkuntza taldeak irabazi du, *Argizagi. Zubiak adiskidetasunerantz* animaziozko telesailagaz.


'El Brujo'-ren 'Cómico', Elorrion eta Durangon

Rafael Alvarez aktore nekaezinak emanaldi bikoitza egingo du asteburuan; gaur Elorrion eta domekan Durangon

ANTZERKIA • A. M.

Rafael Alvarez *El Brujo* ibilbide luzeko aktoreak bere azken hamar urteak batzen dituen *Cómico* ikuskizuna dakar Durangaldera asteburuan; emanaldi bikoitza egingo du, lehenengoa Elorrion, gaur, eta hurrengoa domekan, hilak 17, Durangoko San Agustin kultur-gunean. Aktoreen eta, batez ere, antzerkigileen ofizioaren nondik norakoak azaltzen ditu *El Brujo*-k bere azken lanean, eta bere ibilbideko eta bizitzako pasarteak ere gehitzen dizkio; horrek pribilegio

bihurtzen du ikuskizuna. "Azken hamar urteetako lanaren esentzia da. Egunero desberdina da, eta anekdota batek, eguneko albiste batek, publikoak berak, berezi egiten du emanaldi bakoitza", dio berak. "Niretzat barre momentu horiek zer diren azalduko dut, ikuskizunak zelan prestatu izan ditudan, zertarako, eta zergaitik egin ditudan. Ni ezagutzen nauen publikoagaz partekatu gura dut une hauek, gozatzeko, eta eurek ere gozatzea espero dut", gaineratu du.



Rafael Álvarez 'El Brujo'

Gai librean

Bada

Efemerideak guban zauriak direla kantatu dute Anarik eta J Martinak. Izan ere, denbora ez da egun, urte, minutu zein orduetan (bakarrik) neurtzen. Urtea bukatzeaz dago, eta abenduak eman digu jada herri oso baten Azoka bat; eta konturatu orduko urte berria agurtzera gonbidatuko gaitu. 365 egunek asko konta dezakete, eta zauriz ez ezik, akorduz, borrokaz, konpromisoaz, hutsez zein beteez ere osatzen da egutegi bat.

Urte batean kabitzen da bizitza oso bat, Maddirena. Kabitzen dira Troitiri emandako bi muxuak eta kabitzen dira sei bis Martutenen. Kabitzen da Getarirekin mundu berri bat eta kabitzen dira heriotza bi Patagonian.



Miren Erdoiza Mujika
Irakaslea

Kabitzen dira milaka pertsona 'Txoria txori' herriari kantatzen eta kabitzen da faxismoa Durangoko Udalean

Izena duena bada; eta gertatzen dena ere bai. Tabernetan eta autobusetan gaudela diote

Kabitzen da auto istripu bat Zumaian eta tiroketa matxista bat Orion. Urtebetean kabitzen dira 20.000 erailketa palestinar herrian, eta kabitzen dira Larrano, Udaltax eta Anboto. Kabitzen da Greba Feminista Orokor bat eta kabitzen da 6.000 €-ko gastua alokairuan. Kabitzen dira milaka pertsona *Txoria Txori* herriari kantatzen eta kabitzen da faxismoa Durangoko Udalean.

Egunkarietako orrialdeak bete dituzte hauek zenbait gertakizunek; beste batzuek, ez. Kontatzen ez dena, gertatu da? Izena duena bada; eta gertatzen dena ere bai. Tabernan eta autobusetan gaudela diote. Manifestan, kontzertuetan, kartzeletan, izaretan, izarretan eta Fitz Roy-n ere bai.

Betsaide Elorrioko gizonak eta Durango Rugby Taldeko emakumeak, irabazteaz aspertzen ez diren taldeak

Talde biak Euskal Ligan dabilta. Elorrio liderrak txapeldun geratu gura du, iazko moduan. DRTk orain arteko zazpi partiduak irabazi ditu, gehienak alde handiagaz

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Betsaide Elorrioko gizonak eta DRTko emakumeak 2023ko azken partidua jokatu dute zapatuan. Emaitzak ez dio denboraldiko balorazioari eragingo. Irabazi zein galdu, 2023a urte gogoangarria izan da talde bientzat.

Betsaide Elorrio Euskal Ligako txapeldun geratu zen iaz, eta aurreko bide berdina darama. Jokaturiko zortzi partiduetatik zazpi irabazi ditu eta lider dago. Bihar, 15:30ean, Atletico San Sebastian hartuko dute etxean.

Nico Martinez argentinarrek Getxoko talde nagusia entrenatzen joan den Kemen Goitiandia ordezkatu du aulkian, baina entrenatzaile aldaketak ez dio taldearen errendimenduari eragin. "Jokalari asko lagun talde berekoak dira eta, zintzoki, horrek eragiten du. Talde-ira batu eta hain giro ona aurkitzea abantaila bat da niretzat", adierazi du Martinezek. 36 urteko entrenatzaile argentinarrek bere sasoiaren zortzi urte eman zituen Ohorezko Mailan, Gernika Rugby Taldean. Menorcatik (Balear Uharteak) Elorriora etorri da bizitzen, klubeko eskaintza onartuta.

DRTren "gozamina"

DRTko emakumeak ere bikain dabilta. Jokaturiko dena irabazi dute, ia beti alde handiagaz. Datuak hauek dira: zazpi jardunalditan 399 puntu lortu dituzte, 57 partiduko, batez beste; aldiz, 34 puntu baino ez dituzte jaso, partiduko sei baino gutxiago, batez beste.

Iaztik hona jokalariek kopurua bikoiztu egin dute, 30era heldu arte. Beharbada iazko denboraldi bikaina eskarapate ona izango zen taldeagazko interesa pizteko. Kontua da beste kirol batzuetan zebiltzan zenbait emakumek errugbia probatzea erabaki dutela. Beraz, talde zabala dute eta emaitzak bikainak dira. "Aurtengo denboraldia gozamina izaten ari da", dio Sabin Goiti entrenatzaileak.

Bihar Sarako Izarrak taldearen zelaian jokatu dute. Uribarri Barrutietako taldeko jokalariek eta erreferenteetariko batentzat denboraldiko azken neurketa izango da. Beka bati eskerrak, Italiara doa urtarilean, sei hilabeterako, gorputz hezkuntzaren arloan lan egitera. "Pena" ematen dio "hain giro ona" dagoen taldea uzteak, baina "seguenik" taldera bueltatuko dela dio.



Goian, Betsaide Elorrio taldea. Behean, DRTko jokalariek zaleak agurtzen. PEDRO MORENO

Sasikoa Durango Arripu eta Elorrioko Buskantza, izan zirenera bueltatu gura duten taldeen areto futbol derbia, zapatuan

ARETO FUTBOLA • J.D.

Eskualdeko areto futbolak ezagutu ditu garai hobeak. Aspaldian klub batzuk desagertu egin dira eta gure ordezkariek nagusiak, Sasikoa eta Elorrioko Buskantza, izan zirenera bueltatu guran dabilta. Urte asko eman dituzte Hirugarren Mailan —Buskantza Bigarren B Mailan ere ibili da— baina 2021/2022 denboraldian jaitsi zirenetik, Euskal Ligan dabilta. Testuinguru horretan, eskualdeko derbia jokatu dute zapatuan, 17:00etan, Elorrioko kiroldegian.

Sasikoak atzean utzi du sasoi bateko giro nahasia, eta etorkizuna eraikitzen dabil. "Nortasuna berreskuratzeari" eman diote lehentasuna, Durangoko edo inguruko jokalariek batuz, Iker Saez de la Cuesta entrenatzailearen esanetan. Horrez gainera, "lehiari barik jokalariek gustura sentitzeari" eman diote garrantzia. Proiektuko hirugarren

hanka harrobia da. Gazteen taldean "geroago eta jokalariek gehiago" dute; 17 jokalariek, hain zuzen ere, 15 fitxarako, baina txandaka jokatu zuten denei egin diete tokia.

Lan guztia emaitzak ematen dabil. Euskal Ligan hirugarren

Sasikoa igoera postuan dago eta Buskantzak gorantz egin gura du entrenatzailea aldatuta

daude, igoera postuan. "Ezuste-ko" egoera da eraikitze prozesuan dagoen taldearentzat, baina, "ilusioa" lagun, hor jarraitzea itxaroten dute.

Elorrioko Buskantzan gauzak ez doaz itxaroten zuten moduan ligan. Seigarren daude, baina aurreko eguneko fitxaketekin gorago

egoteko moduko taldea dute. Entrenatzailea aldatu dute oraintsu. Bilboko Elorrieta, Galdakaoko Lagun Onak eta Basauriko Solarte entrenatu dituen Alexander Galvezek hartu du gidaritza, eta taldea "motibatuago" dagoela adierazi du klubeko jokalariek eta presidente Unai Arregik. Pizgarri honegatik, gora egitea eta igotzeko borrokan egotea itxaroten dute.

Klubaren egoera orokorrari dagokionez, etorkizuna ez dago bermatuta. Klubaren kudeaketa bi-hiru lagunaren artean egiten dute. Arregi bera da eurretari bat. Hamaika urte daramatza klubean, eta urteetako lanaren "nekea" igartzen du. "Beste proiektu batzuk ere badituzte, eta dena ezin da", azaldu du. Erreleborik barik klubak "desagertu" egin daitekeela dio. Datu batek argi islatzen du egoera: bost talde izandakoak dira, eta aurreko bat bakarrik dabil.



Bizkaia-Durango ziklismo taldeak ez du 2024an jarraituko

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Hamarkada bi nazioarteko maila gorenean lehiatzen egon eta gero, Bizkaia-Durango txirrindulari taldea ez da errepidera irtingo 2024an. "Continental UCI mailan jarraitzeko Espainiako Txirrindularitza Federazioak datorren denboraldirako ezarritako gutxiengo aurrekontu mailara heltzeko modurik dugunez, taldeko zuzendaritzak, kostata, datorren denboraldira ez aurkeztea erabaki dugu", azaldu dute prentsa ohar baten bitartez. Hala ere, "lanean" jarraituko dutela, eta "egoerak ahalbidetzen badu" errepidera bueltatuko direla azaldu dute.

Bizkaia-Durango ibilbide oparoa izan du eta talde erreferentea izan da Espainiako Estatuko egutegian. Hasieran, 2003an, Grande Boucle irabazi zuen Joane Somarribagaz, eta 2023an, Continental mailan, itzuli handi bitan parte hartu duen talde bakarrenetarikoa izan da. Horrez gainera, Bizkaia-Durango izen eta maila handiko txirrindulariak igaro dira; besteak beste, Joane Somarriba, Emma Johansson, Mavi Garcia, Ane Santesteban, Anna Sanchis eta Lourdes Oyarbide.



Finalista biak Durangoko Udaleko eta Jaurilaritzako ordezkariekin, finalen aurkezpenean.

Aldai eta Zabaleta, ikusmin handiko finala, Durangon

Ezkurdi Jai Alai lau eta erdiko finalak hartuko ditu etzi

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak lau eta erdiko Master Laboral Kutxa txapelketako finalak hartuko ditu domekan, 12:00etan. Final nagusian ikusmin handia dago belaunaldien arteko talkan garaile nor irtingo den jakiteko. Gorriz Amaia Aldaik jokatu du, 23 urteko dimoztarrrak. Azken urte bietako txapel-duna eta gaur egungo izarririk handienetarikoa da. Urdinez Goiuri Zabaleta arituko da, 14 urte gazkirol honen etorkizuna eskuetan duela dirudien leitzarra. Finalerdiak Traña-Matienan jokatu zituz-

ten eta hara joan zirenek bertatik bertara ikusi zuten finalista bien maila. Aldaik 22-3 irabazi zion Miriam Arrillagari.

Arratsaldean lau final

Arratsaldean, 16:00etan, beste lau final jokatu dira. Pilota goxuan final bi daude: gazteetan Ainitze Arratibel Ezki Ariztiren kontra, eta nagusietan Nagore Aramendi Sonia Irisen aurka. Pilota mistoko finalak honako hauek dira: gazteetan Onintza Galdos Malen Lamadriden kontra, eta promesetan Lide Lopez Alejandra Bilyak-en aurka.

Eguenean erabakiko dira Olazarreko finalista guztiak

Emakumeen lau eta erdiko eta gizonen binakako finalerdi bana jokatu da Zaldibarko pilotalekuan



Olazar pilotalekua.

PILOTA • J.D.

Zaldibarko Etorkizuneko Olazar Txapelketa azken txanpan sartuta dago. Hiru finalerdiatariko bi jokatu dira dagoeneko, eta azkena datorren egunean jokatu da, 21:30ean. Emakumeen lau eta erdikoan Madalen Etxegaraik eta Leire Garaik neurtuko dituzte indarrak. Gizonen binakakoan Murua-Cuairan eta J. Alberdi-Gabirondo bikoteen artean irtingo dira finalistak. Euren aurkariak bart gaueko finalerdian erabaki ziren eta emaitzak anboto.org webgunean daude. Dagoeneko eraba-

kita dagoena gizonen lau eta erdiko finala da. Oihan Etxebarriak eta Unai Amianok jokatu dute.

Gizonen lau eta erdiko finala erabakita dago. Unai Amianok eta Oihan Etxebarriak jokatu dute

Etxebarriak 22-18 irabazi zion Apezetxeari, eta Amianok 22-21 Irribarriari. Finalak abenduaren 31n jokatu dira.

Jokaldia

Agur Bizkaia, ongi etorri Eneicat

Eguazten honetan irakurri genuen hedabideetan Bizkaia-Durango txirrindularitza taldea desagertu egiten dela hainbat urteren ondoren. Nesken txirrindularitzan benetan momentu zailak bizitzen ari gara, indarrean sartu den lege berriaren harira profesionaltasuna heltzen ari baita gure txirrindularitzara.

Baina harrotasunez esan dezaket, legedi hau orain dela bi urtetik genuela jada ezarrita, eta, nahiz eta bertan jasotzen diren baldintzak bortitzak izan, txirrindularitza benetan profesionalizatzen hasi den sintoma ere bada. Lege berri guztiarekin bezala, bertara egokitu behar duzu; edo eguneratzen zara edo bertan behera geratzen zara. Horixe izan da gure lana, gure lan gogorra, baldintza



Eneritz Iturriagaz
Mazaga
Txirrindularitza

Nahiz eta baldintzak bortitzak izan, txirrindularitza benetan profesionalizatzen ari den sintoma ere bada

Jarrai dezagun lanean, Abadiñon Eneicat Akademia daukagulako eta lanean gogor gabiltzalako

horiek betetzera heltzea, eta egitea lortu dugu.

Beraz, neska txirrindulariak, jarrai dezagun lanean, Abadiñon Eneicat Akademia daukagulako eta bertan orain dela bost urtetik hona lanean gogor gabiltzalako. Nik garai batean Italian izan nuen aukera hementxe izango dugu, etxe ondoan. Harrotasunez eta poztasunez gabiltza, Abadiñoko Udalaren laguntzarekin, eta, jakina, eskuak zabalik ditugu Durangoko Udalaren, Iurretakoaren edo Mankomunikatearen laguntza jasotzeko, zeren eta nire akademian bertako txirrindulariekin lan egingo dugu, eta etxeok zaindu eta hazteko prest nago.

Horiek horrela, jarrai dezagun lanean diziplinarekin eta indar guztiarekin, gure asmoetara heltzeko. Goazen, neska!



Durangoko Azoka

Durango euskal kulturaren erreferente



LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

*Ohiko saltokietan
salgai*

2024

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite Abadiñoako estankoa
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda
ELORRIO	Tximeleta gozoki denda
GARAI	Herriko taberna
IURRETA	Iurreta kopistegia
IZURTZA	Herriko taberna
MAÑARIA	Herriko taberna Talka
MALLABIA	Herriko taberna
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia prentsa denda
ZORNOTZA	Ayerdi prentsa denda



anboto

Bixente Kapanaga, 9 · IURRETA

Tel.: 946 816 558 · anboto@anboto.org · www.anboto.org



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Botikak

BARIKUA, 15 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 16 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 17 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 18 · 09:00-09:00

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 19 · 09:00-09:00

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 20 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 21 · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Aner (958. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

661 40 14 00

gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia

g gozaturgozotegia



Iruñean bizi dan **Izaro Argos Velerdasek** 4 urte egin zituen abenduaren 13an. Zorionak Berriztik, lehengusu Gari eta Lierren partez, eta batez ere, amama Maribiren partez.



Gure etxeko sorgintxuak 8 urte egiten ditu. Jarraitu hain alaia izaten. Zorionak, **Alizetxu!**



Garik 5 urte egin zituen abenduaren 14an, eta izeko **Jaionek** ere urteak egin zituen abenduaren 15ean. Zorionak biori etxeko danon partez.



Abenduaren 15ean **Zuriñe Nogales**ek urteak egiten ditu. Zorionak eta jarraitu hain zorionsu izaten.



Abenduaren 16an **Telmok** 10 urte betetzen dauz eta abenduaren 21ean **Martinek** 12. Jarraitu betiko irripar hoiekin! Eta emon gogor baloiri!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 6° / 13° ☁

ASTELEHENA ↓ 3° / 14° ☀

EGUAZTENA ↓ 6° / 11° ☁

DOMEKA ↓ 4° / 15° ☀

MARTITZENA ↓ 4° / 12° ☀

EGUENA ↓ 8° / 14° ☁

AGORA ezagutzaren plaza

Abenduak 19

🕒 18:30

Hizkuntza: gaztelania

Ezinbestekoa da izena-ematea:

Tel.: 946 81 27 26

WhatsApp edo Telegram 688 86 37 36

biblioteka@iurreta.eus

"Ante la muerte, a nuestra manera"
heriotzaren gaia landuko dugu modu atseginean Nere Erkiagaren laguntzarekin. Heriotzaren inguruan hausnarketa egiteko proposamena da, gure eskubideak eta esparru ezberdinetan har ditzakegun erabakiak ezagutzuz.

Bitartekaria



Antolatzailea



< Gabon Jaia >

Olakueta plazan

abenduak 16

18:30 18:30 - ZOKETA -
20:30 20:30 Gabonetako Saki

Txoripanen banaketa (amaitu arte)

mu sika

Ordenagailu portatila (Dell modelo, 14 hazbete)

Bidaia (Hegaldia + 2 gau Europan)

Informazio gehiago: www.berrizkomerkatari.eus

[f berrizkomerkatarielkartea](#)
[@berrizkomerkatarielkartea](#)
www.berrizkomerkatari.eus

"Guztira 37 herrialde bisitatu ditut, bost kontinenteetan zehar"

Euken Bernas hegazkin zerbitzaria da eta lanbide honek munduko hainbat toki ezagutzeko aukera eman dio; desabantailen artean, hegazkineko janaria eta *jet lag*-a



Euken Bernas Sagarna
Hegazkin zerbitzaria
ELORRIO | 1999

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Euken Bernasek hegazkin zerbitzaria izateko bokazioa izan du umetatik, eta aukera izan zuenean ikasketak egin zituen Bilbon. Egun bateko joan-etorriko hegaldiekin hasi zen, kostu txikiko konpainia batean, orain bost urte. Azken urte bietan, munduan zehar bidaiatzen dabil; "paradisua" dela dio. Londresen (Erresuma Batua) du aire-basea.

Zenbat herrialde bisitatu duzu bost urte hauetan?

Guztira, 37 herrialde bisitatu di-

tut, bost kontinenteetan zehar. 1.500 bat hegaldi egin ditut; Oslora (Norvegia) izan zen lehenengoa, oso urduri nengoen.

Asko bidaiatzeko aukera duzu, askorentzat ametsa. Baina baduzu astirik hiriak eta tokiak ezagutzeko?

Bai. Adibidez, Sydney-ra (Australia) Singapurretik (Asia) joaten gara eta bederatzita egun egiten ditugu joan-etorrian. Beraz, badugu aukera hiriak ezagutzeko, esploratzeko. Rio de Jaineron (Brasil) bost egun egoteko aukera ere izan dut orain dela gutxi. Hegaldi-planen

menpe dago tripulazioa. Beraz, Londredera, etxera ekarri behar dugun hegazkinak 10 egunetara egon behar badu hemen, dagokion tokian geratzen gara ordura arte. Gutxienez gau bat ematen dugu lurrean, beti.

Zein tokik erakartzen zaitu gehien?

Bat edo beste aukeratuko nuke, zertara noan jakinda. Zerbait hartu eta igerilekuan lasai egoteko, Maldivak aukeratuko nuke. India, adibidez, oso herrialde exotikoa iruditzen zait ezagutzeko, izugarri gustatzen zait. Baita Rio

de Janeiro (Brasil) ere. Bestalde, Bermudak, Barbados, Bahamak... paradisiakoak dira. AEBak, ostera, idealizatuta daudela uste dut. New York ikustekoa da, baina herrialde lez oso txarto antolatuta dago eta pobrezia izugarria da.

Zein tokitara joan gura zenuke?

Mexikora eta Jordaniara joateko gogoia dut. Dena dela, mundua oso handia da!

Lan erakargarria duzula esan daiteke.

Bai, gustatzen zait. Bidaiatzeko eta jendea ezagutzeko aukera dut, baina adikzioa sortzen duela esan didate. Hala ere, hegazkineko

San Frantziskon (AEB) pasatuko ditut Gabonak; lagunak ditut han, eta sei egunetarako hegaldia hartu dut

janaria ez da oso osasuntsua, ezta *jet lag*-ak dakartzan ondorioak ere. Hori arintzeko, hegazkina hartu aurretik egokitzen ahalegintzen naiz. Dena dela, oso hegaldi luzeetan bi-hiru orduan lo egin dezakegu.

Sentitzen duzu bakardaderik?

Batzuetan. Batez ere, bereziak diren egun horietan, nahiz eta hegazkineko tripulaziokoek elkar babesten dugun. Iazko abenduaren 25a bakar-bakarrik pasatu nuen, hotel batean, Londresen lur hartu ondoren. Gabon zahar gaua Hong Kongen eman nuen.

Aurten Elorrioren egongo zara?

San Frantziskon (AEB) pasatuko ditut Gabonak. Bertara sei eguneko hegaldia aukeratu du, han lagunak ditudala aprobetxatuta.

Zenbatero etortzen zara Elorriara?

Askotan! (barrez) Ekainetik iraileira, egun libre guztietan etortzen naiz. Neguan gutxiago.

Udan, gainera, Saharatik etorriko neskatoa izaten duzue etxean.

Bai, gogo itzela izaten dut Makfula ikusteko. Aurten, bigarrenetorri da. Etxean hartu dugun hirugarren neskatoa da. Esperientzia izugarria da, oso aberasgarria.

Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



Liluraren alde

Ez dut sekula oso ondo ulertu Mikel Laboaren *Liluraren kontra* abestia: *Lilurarik ez! ez dago itzulterik/ eguna atean dago/ haize hotza dakar/ ez da izango beste goizerik*. Behin bakarrik bizi gara, hark ondo dakien moduan. Interpretatu izan dut abestia 60ko hamarkada amaiera hartan, ideia ustez lilurazkoen alde jendea bizia ematen-eta, pragmatismo baten gorazarrea ez ote zen. Gure sasoiotatik irudikatzen zaila den kontua, ez baitut jende askorik ikusten liluratuta. Normala da, egoera ez da liluragarria: genozidioa telebistan zuzenean, krisi ekologikoa begi bistan, eskuin muturraren gorakada, lan baldintzen okertzea, muga militarizatuak, eta abar.

Laboaren kantaren berbak Bertolt Brechtenak dira, euskarara ekarritako *Gegen Verführung* poemakoak. Beste hizkuntzetara, ostera, *Sedukzioaren kontra* itzuli da: ez gaitzabela limurtu. Ez dakit itzulpenean berbaren hautua ausazkoa izan zen ala ez, baina koadratu zidan denak. Ikusten dut geroz eta jende gehiago seduzitzen dutela ultraeskuintzaren zaunkek, kriptozale gihartsuek, kontserbadoreek, streamer misogino zoldatsuek eta norberekeriek. Liluratu, ostera, ez.

Jende asko seduzitu ahal badu ere, zapaltzaile batek ezin du lilurarik eduki. Sedukzioa planifikatu daiteke, artifiziala da, eroserraza. Lilura beste zerbait da: ideia justuak, irribarrea, mundu berria, begietan distira. Lilura kutsatu egiten diogu elkarri, sedukzio dantza barik, antzerki barik, trikimailu barik. Brechtek, Laboak eta beste hainbatek egin bezala: bizitzaren alde, ustelen kontra, liluraren alde.

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka

Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude Estás en tu casa www.sukia.com

KALERATZE prezio bereziak